DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

# DOCENTIAZ programaren eskuliburua

**2011ko Ekaina**

# AURKIBIDEA

Or.

Sarrera 3

1. kapitulua. UPV/EHUko irakaslana ebaluatzeko politika instituzionala 4

2. kapitulua. Programaren funtsa, helburuak eta ondorioak 6
   2.1. Programaren helburuak 7
   2.2. Programak bere fase esperimentalean dituen ondorioak 8
   2.3. Programaren aplikazio eremua 8
   2.4. Programaren izaera 9
   2.5. Programa unibertsitateko kideen artean zabaltzea eta onartzea 10

3. kapitulua. Programaren egitura 11
   3.1. Ebaluatu beharreko dimentsioak eta ebaluazio irizpideak 11
   3.2. Informazio iturriak 13
   3.3. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea (IEUB) 14
   3.4. Programa garatzen laguntzeko zerbitzuak 15

4. kapitulua. Programa bere fase esperimentalean aplikatzeko prozedura 16
   4.1. Deialdiaren irekiera 16
   4.2. Eskaeren aurkezpena 16
   4.3. Ikastegiko Kalitate Batzordeak eratzea 16
   4.4. *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarrituta txostenak egitea 16
   4.5. Hainbat iturritatik informazioa jasotzea eta espedienteak egitea 17
   4.6. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) espedienteak baloratzea 17
   4.7. Ebaluazioko amaierako txostenak prestatzea eta zabaltzea 17
   4.8. Alegazioen prozedura 18

5. kapitulua. Programa bere fase esperimentalean aplikatzetik eratorritako erabakiak hartzeko ezarritako prozedura 20
   5.1. Irakaslanaren ebaluaziotik eratorritako ekintzen jarraipena 20
   5.2. Programaren erregulazio sistema 20

ERANSKINAK 21

1. eranskina. Programan parte hartzeko ebaluazio eskabidearen eredua 23

2. eranskina. Irakaslearen autotxostenaren eredua 27

3. eranskina. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txosten eredua 47

4. eranskina. *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarritutako txosten eredua 63

5. eranskina. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio protokoloa 71

6A eranskina. Irakaslearen amaierako txosten eredua 87

6B eranskina. Erakundeari zuzendutako amaierako txosten eredua 97

7. eranskina. Alegazioetarako formulario eredua 105

8. eranskina. Eskuliburuan erabilitako hitzen glosarioa 109

## Sarrera

Unibertsitateko ikasketen eta irakaslanaren kalitatea bermatzea funtsezkoa da Europako Unibertsitate Eremua taxutzerakoan. DOCENTIAZ programak irakaslana ebaluatzeko oinarriak finkatu nahi ditu, irakasleen garapen profesionala lortze aldera, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen garapen instituzionalak eta lurralde garapenak markatutako beharrak kontuan hartuta. Programa honekin irakaslearen funtzioa indartu nahi da eskainitako irakaskuntzaren ikuspegi integrala aplikatuta, iturri ezberdinetan oinarrituta sortzen dena (irakasleak, arduradun akademikoak, ikasleak eta erakundea bera). Informazio fidagarri eta egiaztatua ematen duen irakaslanaren ebaluazio prozedura bat izateak karrera akademikoaren garapena eta titulazioen egiaztapena erraztuko du. DOCENTIAZ programaren emaitzek irakasleen jardunbide egokiak antzemateko balio izango dute eta UPV/EHUk diseinatutako irakasleen prestakuntza eta berrikuntza programei lotuta egongo dira.

Gaur egungo lege esparruak, Unibertsitateen Lege Organikoa aldatzen duen 4/2007 Legeak ezarria, 1393/2007 Errege Dekretuak garatua eta uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuaren bidez aldatua, irakaslanaren ebaluazioa unibertsitateko irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko estrategiatzat jotzen du. Aipatu araudian nabarmentzen da Unibertsitateak titulua diseinatzerakoan duen autonomia irakaslanaren kalitatea ebaluatzeko eta hobetzeko prozedurak antolatuko dituen egiaztapen eta ziurtapen sistema egokiarekin bateratu behar dela. Ondorioz, Kalitatea Bermatzeko Sistemak barneratu dira eta ikasketa plan berrien funtsezko atala dira.

DOCENTIAZek ANECAko DOCENTIA programan ezarritako eskakizunak betetzen ditu, agentziak horrek berak egindako egiaztapenean eta UPV/EHUk eta UNIQUAL agentziak 2007ko maiatzean izenpetutako garapen hitzarmenean adierazten den bezala.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2009ko abenduaren 22ko bilkuran, DOCENTIAZ programaren lehen bertsio esperimentala onartu zuen. Bi batzordek egindako lanaren emaitza da; batetik, programa egiteaz arduratu zenarena, eta, bestetik, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearena (IEUB), errektoreak xede horretarako izendatu eta Gobernu Kontseiluak berretsitakoa.

Fase esperimentaleko lehen deialdia ezarri ondoren, jarraipen txostena prestatu zen. UNIBASQek eta ANECAk txostenaren aldeko balorazioa egin zuten eta, UPV/EHUren lana onartzeaz gain, hurrengo deialdietarako zenbait gomendio proposatu zituzten.

UNIBASQen eta ANECAren gomendioak kontuan izanik, baita lehen deialdian parte hartu zuten eragile ezberdinengandik bildutako informazioa ere, IEUBk programaren bigarren bertsioa prestatu zuen, jarraian aurkeztuko duguna.

DOCENTIAZ programaren eskuliburu argitzaile hau "UPV/EHUko irakaslana ebaluatzeko politika instituzionala” izeneko kapituluarekin abiatzen da, bertan DOCENTIAZ programa kokatuta dagoeneko esparru instituzionala deskribatzen da. Bigarren kapituluak, “Programaren funtsa, helburuak eta ondorioak”, sustatu nahi den irakaslana ebaluatzeko programarekin zerikusia duten hainbat atal aurkezten ditu: helburuak, ondorioak, aplikazio eremua, programaren izaera, hedapena, etab. Hirugarren kapituluan dimentsioak, irizpideak eta informazio iturriak deskribatzen dira eta baita UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearen (IEUB) eginkizunak eta osaera ere. Laugarren kapituluak DOCENTIAZ programa gauzatzeko prozeduraz dihardu. Azkenik, bosgarren kapituluan prozesuaren ondoriozko ekintzen jarraipenari eta programaren erregulazio sistemari buruz hitz egiten da.

Eskuliburua zenbait eranskinek osatzen dute: programan parte hartzeko ebaluazio eskaeraren eredua, informazioa biltzeko erabiltzen diren hiru iturrietako informazioa jasotzen duten tresnen ereduak, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio protokoloa, amaierako ebaluazio txostena prestatzeko ereduak, alegazioetarako formularioa eta, azkenik, eskuliburuan erabilitako hitzen glosarioa.

# 1. KAPITULUA. UPV/EHUko irakaslana ebaluatzeko politika instituzionala

UPV/EHUren Estatutuek Unibertsitateak irakaskuntzen kalitatearekiko hartutako konpromisoa biltzen dute. UPV/EHUren helburuak deskribatzerakoan, Estatutuen 4c artikuluak honela dio: "Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea". Hori esanda, Estatutuek xede horretarako betebeharrak zehazten dituzte, nola taldeenak hala gizabanakoenak, eta aipatu *kalitatea* eskatzeko eskubide subjektiboak ere aitortzen dira.

Horrela, Estatutuen 79. artikuluko laugarren atalak dio UPV/EHUk irakaskuntzaren kalitatea eta gizartearen premiekiko egokitasuna zainduko duela, eta irakaskuntzaren jarraipena ziurtatuko, barne programen zein kanpokoen bidez.

V. kapituluak, "*Unibertsitate jardueraren kalitate bermeari eta ebaluazioari*" buruzkoak, biltzen dituen xedapenei jarraituz (105etik 109ra bitarteko artikuluak), UPV/EHUk irakaskuntzaren kalitatea bermatuko du, honela:

1. Jardunaren plangintza estrategikoa eginda eta helburu estrategikoak beteko direla ziurtatuko duten neurriak hartuta.
2. Aplikatutako ekintza eta programazioen eta unibertsitate egitura guztien ebaluazio sistematikoa eginda.
3. Bere irakaskuntza eta ikerketa jarduera eta administrazio eta zerbitzuetakoa hobetzeko programazioak onartuta.
4. Titulazioen jarraipena eginda, barne kalitatea bermatzeko sistemen bidez.
5. Gizarteari kontuak emanda.

Horretarako tresna nagusi bat izango du, bere unibertsitate jardueraren errendimenduaren neurketa sistematikoa, hain zuzen ere; honek autoebaluazioa eta kanpo ebaluazioak barneratzen ditu, azken hauek instantzia edo aditu independenteen eta unibertsitate egitura eskuduneko maila ezberdinetako arduradunen arteko lankidetza, kontsulta eta aholkularitza prozesu gisa eratzen direlarik.

Betebehar horiek ez dagozkio modu abstraktuan soilik Unibertsitateari, baizik eta, 107. artikuluan jasotako mandatua betez, "Irakasleen kalitatea eta irakaskuntzarena bermatzeko xedez, Gobernu Kontseiluak UPV/EHUko irakasleen irakats lana ebaluatzeko arautegia, programak eta prozedurak onartuko ditu, guztia irakasle eta ikertzaileen eta ikasleen ordezkaritza organoen parte hartzearekin". Horrez gain, "Irakats lana konfiantza giroan ebaluatuko da zuzentasun irizpideei jarraituz. Horrela, bada, irakasleek ebaluazioan lortutako emaitzen kontrako alegazioak egiteko eta errekurtsoa jartzeko eskubidea izango dute". Ebaluazioaren emaitzak, osotasunean edo zehaztuta, irakasleei, sailei, ikastegiei, ikasleen ordezkariei eta barneko zein kanpoko talde interesdunei behar bezala jakinaraziko zaizkie.

Estatutuek diote irakasleek eskubidea dutela "Jarduera akademikoa aintzat hartu eta errespetatzea, eta ebaluazioa aldez aurretik ezarritako irizpide publiko, objektibo eta gardenen arabera egitea. Era berean, beraiengan eragina duten ebaluazioen emaitzak ezagutzea eta, beharrezkoa izanez gero, erreklamazioak egitea" (41. artikulua).

Unibertsitateko kide anitzeko organoek beren gain hartutako erantzukizunaz gain, Estatutuek irakasle eta ikertzaileak ere barneratzen ditu ahalegin horretan. Horiek ondorengo betebeharrak dituzte, Estatutuetako 42. artikuluaren arabera:

- Ezagutza zientifikoak eta prestakuntza eguneratzea, irakaskuntza eta ikerkuntza jarduerak eta gaitasun pedagogikoa hobetzeko.
- UPV/EHUren kalitatea eta funtzionamendua hobetzen laguntzea, zerbitzu publiko moduan, irakaslanak, ikerlanak eta kudeaketa lanak eginda dagokien alorrean.
- Jarduera profesionalaren kontrol eta ebaluazio lanak egiteko UPV/EHUk ezarri dituen prozeduretan parte hartzea eta urtero sailari, ikerkuntza institutuari edo atxikita dagoen bestelako ikastegiari irakaskuntza, ikerkuntza eta kudeaketa jardueren berri ematea.
- Eskolak ematea kasuan kasuko diziplina alorrean, ikasleen ikaskuntza eta ebaluazioa bultzatzeko egoki diren irakats metodoak erabilita, hezkuntza helburuak lortu ahal izateko.
- Esleitutako irakats lanak eta tutoretzak egitea, baita ere ikerketaren eta berrikuntzaren alorreko lanak eta ezagutzaren transferentziari lotutakoak. Halaber, kudeaketa lanak egitea.

Azkenik, Estatutuetako 17. artikuluak dio funtsezkoa dela ikasleek "Irakasle eta ikertzaileen ebaluazioan eta administrazioko zerbitzuen ebaluazioan parte hartzea eta ebaluazio horiei buruzko informazioa jasotzea, onartutako prozedurei eta indarreko legeriari jarraiki". Bestalde, bere ordezkaritza organo gorenak, hots, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak, UPV/EHUn eskainitako irakaskuntzen eta egindako ikasketen kalitatea zaintzeko eskatzen du, baita bertako ikasleen prestakuntza intelektual, kritiko, sozial, profesional, zientifiko eta kulturalarena ere, titulazio ezberdinen arabera (UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren Araudiko 3. artikulua).

Azken urteotan, UPV/EHUk irakasleak irakaskuntza metodologia berrietan trebatzeko programak sustatu ditu, irakaskuntzari aplikatutako IKTak garatu ditu eta titulazioetako curriculum garapenak berrikusi eta hobetzeko prozesuak jarri ditu martxan, EUEren eskakizunetara egokitzearren. Unibertsitateko kideek orain arte egindako ahaleginari esker, hezkuntza eredu propio bat garatzeko oinarriak zehazteko bidean aurrera egin ahal izan dugu. Eredu honek lehiarako indarra emango dio gure hezkuntza eskaintzari eta Europako unibertsitate eremu berriko gainerako eskaintzekiko bereizi egingo gaitu.

**Ikaskuntza kooperatiboa eta dinamikoa (IKD)** ereduak adierazitako helburua jasotzen du eta UPV/EHUko irakaskuntzetako curriculum garapenerako proposamen gisa taxutzen da. IKD esparrua, Gobernu Kontseiluak 2010eko apirilaren 26ko bileran onartua, UPV/EHUn irakatsi eta ikasteko prozesua garatzeko oinarrizko eredua da eta, horri esker, egungo jardunbideak esparru horretan ezarritako ereduarekin alderatzera bidera daiteke ebaluazioa. IKD programako oinarriei jarraiki, irakatsi eta ikasteko jarduera funtsezko lau bidetatik gauzatzen da.

Lehenik eta behin, irakaskuntza ekintzan inplikatutako pertsonen **etengabeko prestakuntza**, garapen profesional egokia faboratzearren. Prestakuntza programak (AICRE, SICRE, EDP, ERAGIN, BEHATU, FOPU), hezkuntza berrikuntzari laguntzeko proiektuak (HBP) eta irakaskuntza ebaluatzeko tresnak (DOCENTIAZ), besteak beste, IKD eraikitzen laguntzen duten ekintzak dira.

Erakundearen ikuspegitik, IKD ereduaren garapenak prozesu iraunkorra eskatzen du, eta, beraren bidez, UPV/EHUk **bere gizarte ingurunearekiko eta ingurune komunitarioarekiko konpromisoa** hartzen du, bokazio publikoa eta iraunkortasun ekonomiko eta sozialeko irizpideak oinarritzat hartuta eta zuzentasun eta inklusio balioak sustatuz. Era berean, IKDk gure unibertsitateak kokaleku dituen hiru lurralde historikoen ezaugarri berezi eta berezkoak hartzen ditu kontuan, horiek bultzatzeko eta haiek prestakuntzarako duten ahalmena xurgatzeko. Gizarte ingurunearekiko arduratsua den curriculum garapena hainbat eratara egiten da: kanpo praktikak, gizarte ekimenekiko laguntza, sare sozialak, enpresekiko harremanak eta mugikortasun programak, gure ikasleen nazioarteko eta lankidetzako esperientzia bultzatzeko.

IKD curriculum garapenak irakaskuntzan inplikatutako eragileen arteko lankidetza sustatzen duten **politika instituzionalak** sustatzen ditu, konfiantza eta dinamismo giroan. EHUNDU bezalako programak (mailako/moduluko eta graduko koordinatzailearen bidez irakaskuntzen erakunde egitura sustatzen duena), **kalitate batzordeak** eta **irakaskuntza taldeen** sustapena funtsezkoak dira irakaskuntza kultura berri honetan.

IKD eredua martxan jartzeko garatutako erakunde egituren ikuspegitik, Ikastegietako Kalitate Batzordeen Araudiak dioenez, ikastegi bakoitzak kalitate batzorde bana du Kalitatearen Barne Bermerako Sistema (KBBS) kudeatzeko, eta bere eginkizunetako bat tituluetako bakoitzera atxikitako irakasleen kalitatea zaintzea da. Horregatik proposatu da irakasle bakoitzaren lanaren kalitatearen berri emateko informazio iturri instituzionalik egokiena Ikastegiko Kalitate Batzordea bera izan dadila.

Beste ekintza instituzional batzuk, esaterako, irakaskuntza mota ezberdinen eskaintza (arduraldi partziala, bertaratuta, erdi-presentziala, bertaratu gabe), IKTak modu nabarmenean eta iraunkorrean erabiltzea, ebaluazioari loturiko araudi instituzionalak, ikastegietako eta eremu komunetako azpiegituren diseinua (IKDguneak) eta eremuak erabiltzeko ordutegia zabaltzea, IKD kultura sustatzen duen ikuspegitik aztertu behar dira.

IKDk **ikasleari** bere ikasteko prozesuko protagonista eta unibertsitatearen gidaritza elementu aktibo bihurtzeko aukera ematen dio. Horretarako, metodologia aktiboen bidez ikastea sustatzen du (ERAGIN, FOPU), etengabeko eta prestakuntzako ebaluazioa bermatzen du, ikastegietan harrera programak bultzatzen ditu, aurretiko esperientzia aitortzeko prozesua egituratzen du (akademikoa, profesionala, bizitzakoa, kulturala), eta mugikortasun programak (ERASMUS, SENECA) sustatzen ditu, baita lankidetzakoak ere.

## 2. KAPITULUA. Programaren funtsa, helburuak eta ondorioak

IKD ereduaren oinarriei jarraiki, irakaskuntza eta ikaskuntza jarduera testuinguru errealetan zehazten da. Testuinguruok jardunbide hori baldintzatzen dute eta, era berean, zentzua eta garrantzia ematen diote. Nabarmentzekoa da eredu honetan ez dagoela egoera bakoitzera eraman daitekeen jardunbide unibertsal egokirik; aitzitik, UPV/EHUren hezkuntza eredu propioa lortzen modu eraginkorrean, zehatzean eta sortzailean lagun dezaketen jardunbide anitz daude. Hala ere, IKDk ondorengoak aipatzen ditu irakaslana ondo egiteko printzipio orientatzaile gisa (ikusi 1. irudia):

a) Irakaskuntza jardunbide egoki bat osatzen duten elementuak ekintza eta gogoeta dira. Jardunbide egoki batek, beraz, bi elementuok lotu behar ditu ekintza-gogoeta-ekintza ziklo etengabea sortuz eta gelan eta gelatik at garatu behar da. Irakaskuntza jardunbide egokiek ikaslearen ikasteko prozesua errazten dute eta informazio garrantzitsua helarazten diete ikastegiari eta unibertsitateari bere osotasunean, bai beren helburuak betetzeari begira etengabeko berrikuspena eta hobekuntza egiteko garaian, bai hauek birplanteatzeko garaian ere, beharrezkoa balitz.

b) Irakaskuntza ekintza kolektiboa da, bai ikuspegiari bai garapenari dagokienez. Bere konfigurazio, antolaketa, garapen eta berrikuspen fase ezberdinetan ezinbestekoa da bere kideak elkarlanean aritzea. Ez da irakasle bakoitzaren jardunbide egokiak identifikatzera mugatu behar, indibidualki; jardunbidea lankidetzaren bidez garatzen duten irakaskuntza taldeak ere sustatu behar dira.

c) Irakaskuntza jardunbide egoki baten erantzukizuna ez da irakaslearen erantzukizuna soilik, erakundearena ere bada. Alde horretatik, zenbait kasutan, iturri ezberdinetatik jasotako informazioak erantzukizun instituzionala duten hainbat jardunbide hautematea ahalbideratuko du (saila, ikastegia, irakasgai bereko irakasle taldea, maila bateko irakasle taldea); horiek aitormena jasotzeko modukoak izan daitezke edo, bestela, hobetzekoen artean koka litezke.

d) Irakaskuntza ikasteko prozesuaren kontzeptuari lotuta dago. Gaitasunak hartzen ez badira, ezin dugu esan garatu den irakaskuntzak baliorik duenik. Horren haritik, irakaskuntzaren plangintza eta garapena irudi nagusia den ikaslearen inguruan egin behar dira. Ikaslearen eta ikaslearekiko prestakuntza beharrak, motibazioa, inplikazioa eta elkarrekintza aitortzera bideratutako ekintzak funtsezko zioak dira eredu honetan.

Irakaskuntza-Ikaskuntza aldagai ugariz inguratuta dagoen jardunbide konplexua da eta ikuspegi horretatik ebaluatu behar da. Euskal Herriko Unibertsitatea hainbat alderdi uztartzen dituen erakundea da: hiru campus, izaera elebiduna, jakintza arlo ugari, zenbait titulaziotan ikasle asko, etab. Alderdi horiek arazoak sortzen dituzte irakasleen artean irakaskuntzaren banaketa egiterakoan. Irakaskuntza zamak, irakaslearen borondatearen baitan zuzenean egon gabe, eragin negatiboa izan dezake bere zereginaren garapenean. Era berean, zuzentasunean oinarritutako ereduak bereizkeria dakarten egoerak detektatzeko gai izan behar du eta kontuan izan behar ditu jardunbide batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak ebaluatzerakoan.




**1. irudia**

## 2.1. Programaren helburuak

<u>Irakasleei dagokienez:</u>

A. Goi mailako hezkuntzan kalitatea, bikaintasuna eta zuzentasuna sustatzen laguntzen duten irakaskuntza jarduerak aitortzea eta saritzea.

B. Berrelikadura eraikitzaile bat finkatzea bere jarduera profesionalaren ezagutza kontrastatuan sakontzeko.

C. Irakaskuntza profesionalaren garapenean eragina duten ekintzak planifikatzea.

<u>Unibertsitateari dagokionez:</u>

D. Kalitatezko irakaskuntza jarduera baloratzea.

E. Irakaskuntza jardueraren azterketa eta erabakiak hartzea erraztuko dituzten ebidentziak izatea, berauek hobetze aldera.

F. Prestakuntza eta garapen profesionaleko programak bideratzea.

G. Berrikuntzan eta lankidetzan oinarritutako lan kultura bat sustatzea profesionalki, instituzionalki eta lurralde moduan garatzeko.

Helburu hauek lortzeko UPV/EHUren zeregina ondorengoa izango da:

- Programa honetatik eratorritako ekintzak sustatzeko ekarpen ekonomiko zehatza ematea.
- Irakasleei laguntzeko antolakuntza egitura garatzea.
- Irakasleei, UPV/EHUk irakasleen ebaluazioari dagokionez markatuta dituen jarraibideen berri ematea.
- Irakasleen garapen profesionala sustatuko duen eta etorkizuneko titulazioen egiaztapen prozesuetan finkatutako baldintzei erantzungo dien unibertsitate irakaskuntzaren ebaluazio sistema bat izatea.

## 2.2. Programak bere fase esperimentalean dituen ondorioak

Fase honetan DOCENTIAZ programak bi ondorio mota izango ditu:

1. **Irakasleei eragiten dieten ondorioak**
   - Irakaskuntza jardunbide egokiak jendaurrean aitortuko dira eta irakasleei ziurtagiria emango zaie.
   - Aurkako ebaluazioa duten irakasleek banakako prestakuntza plana prestatuko dute. Zeregin horretan, HELAZen laguntza izango dute eta beren ikastegiko Kalitate Batzordeak jarraipena egingo du.
   - Ebaluazio onargarria duten irakasleek prestakuntza programetan parte hartzeko lehentasuna izango dute.
   - Ebaluazio ona jaso duten irakasleek ERAGIN programan parte hartzeko lehentasuna izango dute.
   - Ebaluazio bikaina duten irakasleek hezkuntza berrikuntzako planetan eta BEHATU programan parte hartzeko lehentasuna izango dute.

2. **Unibertsitateari eragiten dioten ondorioak**
   - Irakaslana ebaluatzearen emaitzak irakasleen kontratazio berriak bideratuko dituzten adierazleetako bat izango dira.
   - Irakaslana ebaluatzearen emaitzak irakasleak trebatzeko politika instituzionalak bideratuko dituzten adierazleetako bat izango dira.
   - Lortutako emaitzak aztertuta, dagokien unibertsitate agintariek banakoen eta taldeen (irakasle talde garrantzitsuen) jardunbide egokiak sustatuko dituzte eta laguntza, orientazioa eta prestakuntza emateko ekintzak burutuko dituzte, kalitatea eta zuzentasuna bultzatze aldera. Horretarako, HELAZen aholkularitza izango dute.
   - Agintari akademikoek beren jarduera autoebaluatzeko eta beren garapenerako beharrezkoak diren antolakuntzari eta kudeaketari dagozkien aldaketak egiteko erabili beharko dute irakaslanaren ebaluazioan lortutako informazioa.
   - Azkenik, unibertsitate agintarien ardura izango da ebaluazio emaitzak etikoki eta modu gardenean erabiltzea.

## 2.3. Programaren aplikazio eremua

DOCENTIAZ programan UPV/EHUko irakasle guztiek parte hartu ahal izango dute, bai funtzionarioek bai kontratatuek, lanaldi osoan edo partzialean egon. Programak UPV/EHUn ematen diren ikasketa ofizial

guztiei eragiten die (gradua, masterra eta doktoregoa). Ez da kontuan hartu goi mailako hezkuntzako beste erakunde batzuetan eta UPV/EHUko berezko tituluetan egiten den irakaslana.

*Karrerako irakasle funtzionarioek eta lan kontratu finkoa edo kontratu egonkorra duten irakasleek* (irakasle osoak, agregatuak, lankide iraunkorrak) DOCENTIAZ programan *parte hartzeko baldintza* hauek izan behar dituzte:

1. UPV/EHUrekin gutxienez bost urteko kontratuzko harremana eduki izana eta
2. Gutxieneko irakaskuntza zama bat egin izana:
   - 75 kreditu, lanaldi osoan aritzen diren irakasleentzat.
   - 45 kreditu, lanaldi partzialean aritzen diren irakasleentzat.
   - 45 kreditu, kargu akademikoan dihardutelako eskola ematetik salbuetsita dauden irakasleentzat.

Ebaluatuko den irakasle horien denboraldia izango da GAURen aitortu diren eta kredituak dituzten azken bost ikasturteei dagokiena. Eskatutako kredituak ez badira lortzen, ebaluazio epea luzatu egingo da, ezarritako gutxienekoa lortu arte. Epe horretan arduraldiz aldatuz gero, gutxieneko irakaskuntza zama modu proportzionalean kalkulatuko da, ondorengo formularen arabera:

$$\frac{(\mathit{urteakosoan} * \mathit{Gutxieneko\ IZosoan}) + (\mathit{urteakpartzialeanedo\ karguan} * \mathit{Gutxieneko\ IZpartzialean})}{\mathit{ebaluazioaldiarenurteak}}$$

Adibidez, demagun arduraldi osoko kontratua duen irakasle egonkor batek ebaluazio aldia osatzen duten bost urteetatik bi karguren batean eman dituela. Halakoetan, ondorengoak eskatuko lirateke:

$$\frac{(3*75)+(2*45)}{5} = 63 \text{ kreditu}$$

Aldi baterako kontratua duten irakasleek (irakasle atxikiak, lankideak, bitarteko lan kontratudunak, elkartuak) baldintza hauek bete beharko dituzte DOCENTIAZ programan parte hartu nahi badute:

1. UPV/EHUrekin gutxienez hiru urteko kontratuzko harremana eduki izana eta
2. Gutxienez 36 kredituko irakaskuntza zama bat egin izana.

Aldi baterako lan kontratua duten irakasleei ebaluatuko zaien denboraldia (kontratu urteen arabera) hiru eta bost ikasturte artekoa izango da, GAUR programak aitorturiko kredituei dagozkien azken ikasturteenak. Eskatutako kredituak lortzen ez badira, ebaluatu beharreko denboraldia luzatu egingo da, gutxieneko kreditu kopurua lortu arte.

Aldi baterako kontratua duten eta eskaera unean UPV/EHUrekin kontratuzko harremanik ez duten irakasleek DOCENTIAZ programan parte har dezakete, betiere, eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

## 2.4. Programaren izaera

Fase esperimental honetan, programa borondatezkoa izango da. Fase esperimentala beharrezkoa da ebaluazioaren osagai teknikoak era egokian finkatzeko eta prozesu ebaluatzailea erraztuko duen konfiantza giro bat sortzeko.

Lehen deialdia 2010eko maiatzetik 2011ko otsailera bitartean izan zen. Denboraldi horren ondoren, programa meta-ebaluatzeko prozesua abiarazi zen, bigarren deialdirako programan bidezko zuzenketak edo hobekuntzak egitearren.

Fase esperimentala amaitzean, programaren behin betiko ezarpenak zein izaera izango duen erabaki beharko da.

## 2.5. Programa unibertsitateko kideen artean zabaltzea eta onartzea

Lehen deialdian (bai programa eratzerakoan, bai programa garatzerakoan), ikastegietako dekanoei eta zuzendariei DOCENTIAZ programaren berri eman zitzaien eta bilerak egin ziren bai irakasle eta ikertzaileen bai ikasleen ordezkaritza organoekin (Enpresa Batzordea, atal sindikalak eta Ikasleen Kontseilua), inplikatutako guztien ekarpenak bildu eta elkarri jakinarazteko. Era berean, programaren eskuliburua aurkeztu zitzaien Gizarte Kontseiluari, sailetako zuzendariei eta Gobernu Kontseiluko kideei. Bigarren deialdian zehar, programa unibertsitateko ahalik eta kide gehienengana zabaltzen jarraituko dugu.

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren (IEZ) webguneak deialdirako sarbidea ematen du, baita eskuliburuharako sarbidea ere (nola lehen deialdikora hala bigarrenekora). Bertan, gainera, lehen deialdiaren meta-ebaluazioko emaitzak ere kontsulta daitezke (irakasle eta ikertzaileei eta parte hartu duten Ikastegietako Kalitate Batzordeei egindako inkesten ondoriozkoak).

# 3. KAPITULUA. Programaren egitura

## 3.1. Ebaluatu beharreko dimentsioak eta ebaluazio irizpideak

Jarraian agertzen den taulan, ebaluatu beharreko dimentsioak, azpidimentsioak eta bakoitzak duen garrantzia azaltzen da. 0 dimentsioa delakoak, irakaskuntza zamari dagokionak, elementu zuzentzaile gisa dihardu, programako hiru dimentsioetan lortutako puntuazioari indize bat aplikatuz.

| DIMENTSIOA ETA GARRANTZIA (%) | AZPIDIMENTSIOA | GEHIENEZKO PUNTUAZIOA |
|---|---|---|
| **0. Irakaskuntza zama** | 0.1. Irakaskuntza zama | (faktore zuzentzaile gisa dihardu) |
| **1. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena (% 40)** | 1.1. Gaien irakaskuntza plangintza | 20 |
| | 1.2. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena | 20 |
| **2. Emaitzak (% 30)** | 2.1. Arrakasta tasak | 10 |
| | 2.2. *Ikasleek duten iritziari buruzko inkesta* | 10 |
| | 2.3. Zuzendutako edo gainbegiratutako lanak | 10 |
| **3. Irakasleen garapen profesionala (% 30)** | 3.1. Irakaskuntzaren kalitate instituzionaleko prozesuetan parte hartzea | 6 |
| | 3.2. Koordinazio instituzionala | 6 |
| | 3.3. Prestakuntza | 12 |
| | 3.4. Irakaskuntza berrikuntza | 12 |
| | 3.5. Hedapena | 6 |

(*) 3 dimentsioan, irakasleen garapen profesionalari dagokionean, azpidimentsioen gehienezko balioen batura 42 puntura heltzen den arren, gehienezko puntuazioa beti 30 puntukoa izango da.

### 0 dimentsioa

*0 dimentsioaren helburua:* faktore zuzentzaile gisa jardutea eta irakaskuntzan dauden zailtasun maila ezberdinak kontuan hartzea.

*Ebaluazio irizpidea:* Irakaskuntza jarduera garatzen den testuinguruari lotutako konplexutasuna edo zailtasun maila

Irakaslanaren zailtasuna neurtzeko bost faktore hartzen dira aintzat: ikasle kopurua taldeko, irakatsi den ikastegiak, euskaraz irakastea, emandako irakasgai ezberdinen kop. eta irakasle berrien (ez iraunkorren) taldekoa izatea. Emandako eskoletako kredituetan bost faktore horiek aplikatuz gero, ebaluatu beharreko denboraldiko kredituen kopuru egokitua ateratzen da. Kopuru horri honako hauek gehitu behar zaizkio ondoren: irakasleak tutoretzapeko irakasgaiak ematearen truke jasotzen duen kreditu kopurua,

eskuliburuko irakaskuntza zama (2009ko uztailaren 22ko Gobernu Kontseiluaren akordioa, doktoretza tesiak zuzentzea, hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak, eta beste batzuk) eta kargu edo lizentzien ondoriozko murrizketak (karguak, doktoretza tesiak amaitzea, eskolak euskaraz emateko gaitasun linguistikoa lortzeko liberatzea, eta deialdi espezifikoen araberako beste batzuk). Modu horretan lortzen da amaierako irakaskuntza zama. Ondoren, amaierako irakaskuntza zamak irakaskuntza ahalmenari dagokionez (kontratuan jarritako kredituei dagokienez) duen ehunekoa kalkulatzen da.

- Lortutako ehunekoa % 110ekoa edo txikiagoa bada, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 1ez biderkatuko da.
- Lortutako ehunekoa % 110 baino handiagoa eta % 120koa edo txikiagoa bada, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 1,1ez biderkatuko da.
- Azkenik, lortutako kreditu kopurua % 120 baino handiagoa bada, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 1,2z biderkatuko da.

## 1 dimentsioa.- Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena

*1 dimentsioaren helburuak*: Irakaskuntza plangintzaren kalitatea baloratzea, baita irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin eta IKD ereduarekin bat datorren edo ez ere.

*Ebaluazio irizpide orokorrak:*

- *IKD ereduaren eta Gradu Batzordearen eskakizunak egokitzea:* Irakaskuntza jarduerak UPV/EHUk eta berauek garatzen diren ikastegiak ezarritako antolaketari, plangintzari, irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapenari eta ikasleen ikasteko prozesuaren bilakabideari dagozkien baldintzei erantzun behar die. Baldintza horiek titulazioaren ikasketa planean jasotako prestakuntza helburu eta gaitasunekin eta UPV/EHUren helburuekin bat etorri behar dute (IKD eredua).
- *Barne koherentzia:* Irakaskuntza plangintzaren osagai ezberdinek (gaitasunak, irakatsi eta ikasteko modalitateak, eginkizunak eta ebaluazioa) sendotasun esplizitua izan behar dute.
- *Eraginkortasuna:* Irakaskuntza jarduerak, irakasleen eskura jartzen diren baliabideak kontuan hartuz, ikasleen garapena, ikasketa planean ezarritako gaitasunen garapena ekarri behar du; azken finean, aurreikusitako emaitzen lorpena.

Irizpide espezifikoak: 1 dimentsioaren adierazleei dagozkien puntuazioen kalkulua kontsultatzeko, ikusi 5. eranskina (Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio protokoloa). Protokolo honetan, programako adierazleetako bakoitzari aplikatu beharreko irizpideak biltzen dira.

## 2 dimentsioa.- Emaitzak

*2 dimentsioaren helburua:* Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak baloratzea. Horretarako, ikasleen emaitza akademikoak eta irakaskuntza jarduerarekiko gogobetetasun maila aztertuko dira. Era berean, zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak egin izana eta doktorego tesiak zuzendu izana hartuko da kontuan.

Irizpide orokorrak:

- *Gogobetetasun maila (ikasleak, irakasleak):* Irakaskuntza jarduerak irakaskuntzan sartuta dauden gainerako agenteen aldeko iritzia sortu behar du, batez ere, ikasleena, kideena eta arduradun akademikoena.
- *Eraginkortasuna*: Irakaskuntza jarduerak, irakasleen eskura jartzen diren baliabideak kontuan hartuz, ikasleen garapena, ikasketa planean ezarritako gaitasunen garapena ekarri behar du; azken finean, aurreikusitako emaitzen lorpena.
- *Ikasleen autonomia sustatzea:* Irakaskuntza jarduerak lagundu egin behar dio ikasle taldeari gaitasunak eskuratzeko duen mailaz jabetzen eta erabaki akademikoak, profesionalak eta pertsonalak hartzen.

Irizpide espezifikoak: 2 dimentsioaren adierazleei dagozkien puntuazioen kalkulua kontsultatzeko, ikusi 5. eranskina (Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio protokoloa). Protokolo honetan, programako adierazleetako bakoitzari aplikatu beharreko irizpideak biltzen dira.

### 3 dimentsioa.- Irakaskuntzaren garapen profesionala: prestakuntza, berrikuntza, koordinazioa, eta hobekuntzara bideraturiko jarduera instituzionalak

*3 dimentsioaren helburua:* UPV/EHUko irakasleek irakaskuntza berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako duten orientazio maila baloratzea, baita koordinatzaileen (irakasgai, maila, modulu eta titulaziokoen) onarpena ere, bikaintasunezko irakaskuntza lortze aldera.

Irizpide orokorrak:

- *IKD ereduaren eta Gradu Batzordearen eskakizunak egokitzea: Irakaskuntza jarduerak UPV/EHUk eta berauek garatzen diren ikastegiak ezarritako antolaketari, plangintzari, irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapenari eta ikasleen ikasteko prozesuaren bilakabideari dagozkien baldintzei erantzun behar die.* Baldintza horiek titulazioaren ikasketa planean jasotako prestakuntza helburu eta gaitasunekin eta UPV/EHUren helburuekin bat etorri behar dute (IKD eredua).
- *Irakaskuntza berrikuntzarako joera:* Irakaskuntza jarduerari, irakaslearen etengabeko prestakuntzari bide ematen dion jardunbide berari buruzko gogoetatik abiatuta heldu behar zaio, autoprestakuntzaren bidez edo beste instantzia batek erregulatutako prestakuntzaren bidez, eta bere garapena egiterakoan irakaskuntza planifikatzen den eta garatzen den moduan edo bere emaitzak ebaluatzeko moduan hobekuntzak egitearen aldeko jarrera izan behar da.

Irizpide espezifikoak: 3 dimentsioaren adierazleei dagozkien puntuazioen kalkulua kontsultatzeko, ikusi 5. eranskina (Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio protokoloa). Protokolo honetan, programako adierazleetako bakoitzari aplikatu beharreko irizpideak biltzen dira.

## 3.2. Informazio iturriak

Hiru dira DOCENTIAZ ereduan informazioa eskuratzeko erabiltzen diren iturriak:

1. Autotxosten batekin parte hartzen duten **irakasleak** (2. eranskina).
2. Kasu honetan **Ikastegiko Kalitate Batzordean** zehaztutako arduradun akademikoak (3. eranskina).

   Ikastegietako Kalitate Batzordeak informazio iturri bihurtzen dira eta ebaluazioan parte hartzen ari diren irakasleen irakaslanari buruzko ebidentziak bildu beharko dituzte (esate baterako, irakaslea kide duen sailari eskatuta).

   UPV/EHUko Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen esparru araudiak (EHAA, 2010eko uztailaren 21ekoa) 5. artikuluan honako hau dio: "batzorde bat eratu ahal izango da, irakasleen Irakaskuntza Ebaluatzeko Programaren (Docentiaz) informazio-iturri moduan. *Aipatu batzordeak unibertsitateko sektoreek Kalitate Batzordean parte hartzeko dituzten irizpideak errespetatu beharko ditu. Nolanahi ere, sailetako edo ikastegiei atxikitako sailataletako ordezkariek bertan egon beharko dute nahitaez".*

3. **Ikasleak** ere informazio iturri bilakatzen dira *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarrituta sortutako txostenaren bidez (4. eranskina).

Azkenik, UPV/EHUk irakasleen irakaskuntza jarduerari buruz ematen dituen datuak agertzen dira. Datuok aurreko iturrietan barneratzen dira eta ez dute txosten independenterik sorrarazten.

### 3.3. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea (IEUB)

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea (IEUB) espediente bakoitzari buruzko azken ebaluazio iritzia emateko ardura duen erakundea da eta, bigarren deialdi honetako fase esperimentalean, irakaskuntzan ospe handia duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, ikasketetan ibilbide ona izan dutela frogatu duten hirugarren zikloko edo graduondoko ikasleek eta UNIBASQek proposatutako UPV/EHUtik kanpoko bi kidek osatzen dute.

*Osaera:* Espedienteak baloratzeko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea eratuko da, honako kideokin:

- Irakaskuntza jarduera ebaluatzeko eskumena duen errektoreordea, edo horrek eskuordetzen duen pertsona. Bera izango da batzordeburua.
- Jakintza arlo ugarien ordezkari moduan irakaskuntzan esperientzia aitortu zabala duten (10 urte baino gehiago) 9 irakasle.
- UPV/EHUn beren ikasketa guztiak garatu dituzten 2 ikasle.
- Ospe handiko 2 kanpo ebaluatzaile.
- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko zuzendaria, edo, zuzendaririk ezean, teknikari bat (hitzarekin baina botorik gabe).

Batzordeburuak, ebaluatzea eskatzen duten irakasle kopuruaren arabera, Batzordeko kideen kopurua handitu dezake, eta baita jakintza arloei dagozkien azpibatzordeak izendatu ere.

*Izendatzea:* Kideak Gobernu Kontseiluak berretsiko ditu irakaskuntza jardueraren ebaluazio arloan eskumena duen errektoreordearen proposamenari jarraiki. Errektoreak izendatuko ditu 4 urteko epealdi baterako, ikasleen kasuan izan ezik, hauek urtero izendatuko baitira.

*Eginkizunak:* Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak DOCENTIAZ programan parte hartzen duten irakasleen espedienteak aztertu eta baloratuko ditu, ebaluazio protokoloan ezarritako irizpideen arabera (5. eranskina), eta irakasleek aurkeztutako datuen egiazkotasuna alderatzeko aukera izango du. Ebaluazioaren inguruko erabakia bi hilabeteko epean hartuko da eta irakaslearen amaierako txostenaren bidez (6A eranskina) jakinaraziko zaie interesdunei.

Aurrekoaz gain, parte hartzen duten irakasleak saileko eta/edo ikastegiko irakasleen % 30 baino gutxiago baldin bada, Batzordeak saileko, ikastegiko eta/edo unibertsitateko arduradunei zuzendutako txostena prestatuko du (6B eranskina) eta, bertan, nabarmentzekoak diren jardunbide egokiak (nola banakakoak hala kolektiboak) jasoko ditu. Era berean, hobetu daitezkeen jardunbideak adieraziko ditu (irakasleak identifikatu gabe) eta egoki irizten dituen iradokizunak egingo ditu ikastegiak, sailak eta/edo Unibertsitateak bidezko neurri zuzentzaileak ezar ditzan.

*Kideak aukeratzeko irizpideak*: Batzordea eratzerakoan, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun legerian jasotzen diren irizpideak bete behar dira, eta, gutxienez, kideen erdiak beren irakaskuntza euskaraz eman beharko dute.

*- Irakasleak aukeratzeko irizpideak:*
a) Unibertsitatearekiko lotura akademikoa, hamar urtekoa edo gehiagokoa.
b) Unibertsitateko kideen irakaskuntza esperientzia zabala eta aitortua.
c) Arduraldi osoa.
d) Euskaraz irakasteko irakaskuntza gaitasun aitortua, hizkuntza horretan ematen den irakaskuntza ebaluatzen denean.
e) Irakasle emerituak eta bisitariak kanpoan geratzen dira.

*- Ikasleak aukeratzeko irizpideak:*

- Plan zaharretako hirugarren zikloa edo plan berrietako graduondokoa egiten ari diren eta UPV/EHUn lizentziatu edo graduatu diren ikasleak.
- Batzordeko kide den ikaslea historial akademiko onena dutenen artetik aukeratuko da, ahal denean.

Batzordeko kideren batek DOCENTIAZ programako deialdian parte hartzea eskatzen badu, Batzordean dituen erantzukizunetatik libre geratuko da prozesu honi dagokionez; horiek ordezko batek hartuko ditu bere gain, behar izanez gero, edo, bestela, Batzordeko gainerako kideek,

betiere, irakasle ordezkatuak duen kargua edo egoera Batzordean behar bezala ordezkatuta badago.

Aipatu batzordearen sorrera, izendapena eta funtzionamendua arautuko dituen prozedura IEZren webgunean argitaratuko da.

### 3.4. Programa garatzen laguntzeko zerbitzuak

DOCENTIAZ programa garatzerakoan, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ) laguntza teknikoa eta aholkularitza emango ditu prozedurari buruz.

Ebaluaziotik datozen ekintzetarako (prestakuntza eta aholkularitza, batez ere), Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (HELAZ) eta Kalitate Katedrak laguntza emango dute; horiek prestakuntza programez eta irakaskuntzaren eta kudeaketaren kalitatea hobetzeaz arduratzen dira UPV/EHUn.

Era berean, batzorde mistoa eratuko da, Irakasleen Errektoreordetzako ordezkariek, GAUR aplikazioko arduradunek eta IEZko zuzendariak osatuta, GAUR aplikazioan sartutako datuen jarraipena egiteko.

# 4. KAPITULUA. Programa bere fase esperimentalean aplikatzeko prozedura

## 4.1. Deialdiaren irekiera

UPV/EHUk 2011ko ekainaren 27an argitaratuko du DOCENTIAZ programan norbere borondatez parte hartzeko fase esperimentalaren bigarren deialdia. Aldez aurretik, UPV/EHUko web orrian sortutako DOCENTIAZ ATARIAren bidez eta egoki ikusten diren beste bitarteko batzuk erabiliz deialdiaren hedapena egingo da.

## 4.2. Eskaeren aurkezpena

Eskaerak 2011ko ekainaren 27tik uztailaren 27ra egingo dira UPV/EHUren webguneko DOCENTIAZ atarian. Parte hartu nahi duen irakasleak bere LDAP sartuko du https://lgpx09.lg.ehu.es/Exp_Docentiazv2.nsf helbidean eta aplikazio informatikoak programan ezarritako baldintzak betetzen dituen jakinaraziko dio.

Hala bada, jarraian eskabideko datuak aktibatuko dira (1. eranskina), eta irakasleak ondorengo autotxostena egiteko irakasgaia aukeratu beharko du. Aukeratutako irakasgaiaren Ikasle Gida erantsiko da. Delako irakasgaiak ondorengo hiru baldintzak bete beharko ditu: bertan bost ikaslek egon behar dute matrikulatuta, gutxienez; irakasleak irakasgaiak dituen kredituen % 30 behintzat eman behar izan ditu; eta irakaskuntza horrek 1 kreditukoa izan behar du. Ikasle Gida irakasleak ikasturte hasieran ikasleei ematen die eta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) aztertuko du, irakasleen irakaslanak duen kalitatearen ebidentzia gisa.

Interesatuta dagoen irakasleak oniritzia emango die ebaluazio eskaerako datuei eta automatikoki programa informatikoan erregistratuta geratuko da. Ohartarazi behar da, irakasleak ez badaude ados UPV/EHUko erakunde oinarrietatik (funtsean, GAUR aplikaziotik) deskargatzen diren datuekin, erreklamazioa bideratu ahal izango dutela, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ) kudeatuko duena.

Autotxostena egiteko aukeratutako irakasgaiko Ikasle Gidarekin egin den eskaera irakaslea atxikita dagoen Ikastegiko Kalitate Batzordeari bidaliko zaio. Une horretatik aurrera, irakasleak 2011ko irailaren 27ra arte izango du autotxostena betetzeko. Horretarako, aplikazio informatikoko erabiltzaile eskuliburuan jasotako argibideei jarraitu behar die.

## 4.3. Ikastegiko Kalitate Batzordeak eratzea

Programan parte hartzeko eskaera egin duten irakasleen zerrenda izatean, irakasleak atxikita dauden Ikastegietako Kalitate Batzordeen presidenteei horren berri emango zaie, ebaluazio eskaerak eta irakasgaiko Ikasle Gida helarazita.

Ikastegietako Kalitate Batzordeetako kideek bide telematikotik osatuko dute Batzordearen txostena. Irakasleak aukeratutako irakasgaia beste ikastegi batean emango balitz, informazioa dagokion ikastegiari eskatuko zaio. Batzordeak 2011ko irailaren 27a baino lehen bidali beharko du txostena.

## 4.4. *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarritutako txostena prestatzea

Parte hartuko duten irakasleek *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* (4. eranskina) oinarritutako txostena kontsultatu ahal izango dute autotxostenean. 2006/07 ikasturtetik aurrerako txostenak ikus daitezke, orduan barneratu baitzen inkesta GAUR aplikazioan.

IEZk 2011ko uztailaren 27a baino lehen bidaliko dizkio Ikastegiko Kalitate Batzordeari irakasleak aukeratutako irakasgaiaren titulazio txostena eta irakaslearen sailaren txostena.

## 4.5. Hainbat iturritatik informazioa jasotzea eta espedienteak egitea

IEZk, horretarako sortutako espedienteen datu basean, iturri bakoitzetik etorritako informazioa barneratuko du: autotxostena, Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena eta *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarrituta egiten den txostena.

Txosten guztiak eskaera egin duten irakasleen espedientean sartuta egongo dira 2011ko irailaren 30a baino lehen. Data horretan, IEZk espediente horiek Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeari helaraziko dizkio.

## 4.6. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) espedienteak baloratzea

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak espediente guztiak jasoko ditu 2011ko irailaren 30a baino lehen. Data horretatik aurrera informazioa aztertzen eta baloratzen hasiko da.

Txostenak DOCENTIAZ ATARIAN integratuko dira, eta informazio horretara pasahitz baten bidez soilik sartu ahal izango da irakaslea.

## 4.7. Ebaluazioko amaierako txostenak prestatzea eta zabaltzea

Irakaslearen amaierako txostenak dimentsioetako bakoitzaren balorazio kuantitatiboa barne hartzen du, baita irakaslearen irakaslanari buruzko amaierako balorazio kualitatiboa ere (hemen, nabarmendu beharreko jardunbideak aipatzen dira). Irakaslearen amaierako txostenak 120 puntu izango ditu, gehienez.

Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako txostenean 30 puntu baino gutxiago lortzen dituena.

Aldeko ebaluazioan hiru kategoria sartzen dira:

> Ebaluazio onargarria: ebaluazio onargarria izango da irakaslearen amaierako txostenean 30 eta 60 puntu artean lortzen dituena.
>
> Ebaluazio ona: ebaluazio ona izango da irakaslearen amaierako txostenean 61 eta 90 puntu artean lortzen dituena.
>
> Ebaluazio bikaina: ebaluazio bikaina izango da irakaslearen amaierako txostenean 90 puntu baino gehiago lortzen dituena.

Aldeko ebaluazioaren hiru kategorietan ezinbestekoa da:

- 1 dimentsioan, Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintzari eta garapenari dagokienean, gutxienez 20 puntu lortzea.

Ikastegira edo sailera zuzendutako amaierako txostenak dagozkien arduradunei bidaliko zaizkie eta unibertsitateko kideek kontsultatu ahal izango dituzte, IEZri eskatuta. Txostenak parte hartzen duten irakasleak ikastegi edo sail bateko kideen % 30 badira prestatuko dira.

Erakundeari zuzendutako amaierako txostenak balorazio kualitatiboa dakar. Bertan, irakaslanean eredugarritzat jotzen diren jardunbideak adierazten dira, hedatu eta aitor daitezen ebaluazio eredua osatzen duten dimentsioei dagokienez. Era berean, amaierako puntuazioa ematen du, dimentsiotan banakatuta. Txosten honek balio instituzional handia du, sail edo ikastegi jakin baten irakaskuntza jarduera bere osotasunean baloratzea eta, azken baten, irakasleen prestakuntza planei, aitormenei… lotutako erabakiak hartzea ahalbidetzen duelako.

Irakaslana ebaluatzearen arloko errektoreordetza eskudunek (eta hauen zerbitzuek) erabilera konfidentziala duten txosten guztiak jasoko dituzte, ebaluazio prozesuan lortutako emaitzetatik eratorritako erabakiak har ditzaten.

Ikastegiko Kalitate Batzordeak ebaluazioan emaitza txarra izan duten irakasleen banakako txostenak jasoko ditu, dagozkien hobekuntza jarduerak diseinatzen eta jarraipena egiten laguntze aldera. Batzorde horretako kideek txosten horietan dagoen informazioa isilean gordetzeko betebeharra izango dute.

## 4.8. Alegazioen prozedura

Amaierako erabakiari buruz alegazioak aurkezteko, 15 eguneko epea egongo da, irakaslearen amaierako txostena jasotzen den egunetik hasita.

Alegazioak formatu elektronikoan aurkeztuko dira (7. eranskina), DOCENTIAZ ATARIAren bidez; haiekin batera, bidezkoak iruditzen diren agiriak eta ziurtagiriak ere aurkeztu ahal izango dira.

Epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez bada edo interesdunak adierazi badu ez duela alegaziorik egingo eta ezta agiri edo ziurtagiri gehiagorik aurkeztuko ere, izapidea burututzat joko da.

Batzordeak gutxienez hilabeteko epea izango du jasotako alegazioak aztertu eta haien gaineko erabakiak hartzeko eta amaierako txostena prestatzeko. Amaierako txosten horren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko errektoreari eta honek xede horretarako sortutako Berme Batzordeari bidaliko dio. Batzorde hau honela osatuta egongo da:

- Errektorea, edo honek eskuordetzen duen pertsona. Bera izango da batzordeburua.
- Ebaluazio arloan eskumena duen errektoreordea.
- Jakintza arlo bakoitzeko irakasle ordezkari bana
- Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren arduraduna, edo honek eskuordetzen duen pertsona.
- Ikasleen ordezkari bat.

Berme Batzordeko kideek errektoreak proposatuko ditu eta Gobernu Kontseiluak berretsiko. Batzordeak ordezkari sindikalei entzungo die erabakiak ebaluatzen den irakaslearen lan baldintzetan eragina duen kasuetan.

Ondorengo irudian, ebaluazio prozedura osoa laburbiltzen da:


Irakasleak:
Eskaera aurkeztea
SED/IEZ:
Baldintzak betetzen ditu?
EZ
Eskaerari
uko egitea
BAI
SED/IEZ:
UPV/EHUko datu base instituzionalak deskargatzea: irakasleen irakas-lanari buruzko datuak
Irakasleak:
Datuak zuzenak dira?
EZ
Datuak
zuzentzea
BAI
Irakasleak:
Autotxostenean aurkeztu beharreko irakas-gaia aukeratzea eta horri oniritzia ematea
Irakaslea
Autotxostena
IKB:
Txostena
SED/IEZ:
Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren txostena
CUED/IEUB:
Ebaluatzea, erabakitzea eta irakasleei jakinaraztea
Irakaslearen amaierako ebaluazio txostena
Irakasleak:
Alegazioa?
EZ
Ebaluazio prozesuaren amaiera
BAI
CUED/IEUB:
Alegazioak baloratzea eta ebaztea. Irakasleei jakinaraztea
Irakasleak:
Errekurtsoa
EZ
Ebaluazio prozesuaren amaiera
BAI
BERME BATZORDEA:
Irakasleari buruzko amaierako ebazpena
Irakaslearen amaierako ebaluazio txostena

# 5. KAPITULUA. Programa bere fase esperimentalean aplikatzetik eratorritako erabakiak hartzeko ezarritako prozedura

## 5.1. Irakaslanaren ebaluaziotik eratorritako ekintzen jarraipena

UPV/EHUk DOCENTIAZ programatik eratortzen diren ekintzen jarraipena egiteko laguntza emango du, irakasleei zuzendutako prestakuntza programak gauzatzearen arduradun diren Kalitate Katedraren eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (HELAZ) bitartez.

**Irakasleei dagokienez:**

| | 1.2. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena | 20 |
| **2. Emaitzak (% 30)** | 2.1. Arrakasta tasak | 10 |
| | 2.2. Ikasleek duten iritziari buruzko inkesta | 10 |
| | 2.3. Zuzendutako edo gainbegiratutako lanak | 10 |
| **3. Irakaskuntzaren garapen profesionala (% 30*)** | 3.1. Irakaskuntzaren kalitate instituzionaleko prozesuetan parte hartzea | 6 |
| | 3.2. Koordinazio instituzionala | 6 |
| | 3.3. Prestakuntza | 12 |
| | 3.4. Irakaskuntza berrikuntza | 12 |
| | 3.5. Hedapena | 6 |

(*) 3 dimentsioan, irakasleen garapen profesionalari dagokionean, azpidimentsioen gehienezko balioen batura 42 puntura heltzen den arren, gehienezko puntuazioa beti 30 puntukoa izango da.

Azken ebaluazioa era honetan sailkatuko da:

- Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako txostenean 30 puntu baino gutxiago lortzen dituena.
- Aldeko ebaluazioak 3 kategoria barne hartzen ditu:

- Ebaluazio onargarria: ebaluazio onargarria izango da irakaslearen amaierako txostenean 30 eta 60 puntu artean lortzen dituena.
- Ebaluazio ona: ebaluazio ona izango da irakaslearen amaierako txostenean 60 eta 90 puntu artean lortzen dituena.
- Ebaluazio bikaina: ebaluazio bikaina izango da irakaslearen amaierako txostenean 90 puntu baino gehiago lortzen dituena.

Aldeko ebaluazioan ezinbestekoa da 1 dimentsioan, Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintzari eta garapenari dagokienean, gutxienez 20 puntu lortzea.

## EBALUAZIO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

## 1 dimentsioa.- Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena

*1 dimentsioaren helburua*: Irakaskuntza plangintzaren kalitatea baloratzea, baita irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin eta IKD ereduarekin bat datorren edo ez.

### *1.1. Gaien plangintza*

Ikasle Gidak bi eginkizun ditu: *irakasgaia aurkezteko bitarteko nagusia* da eta, ikasturtean zehar, irakasle eta ikasleentzako *bidaia orri* gisa erabiltzen da. *Ongi egituratutako gida osatuak* eskaini behar dituzte UPV/EHUko irakasleek, ikaskuntza bermatzeko informazio nahikoa ematen dutenak, *ikasleek ulertzeko moduan argi idatzita*.

Gida plangintzarako tresna bat da, eta, aldi berean, *hausnartzeko espazio* bat da irakasleentzako. UPV/EHUko irakasleek ikasketa planeko aurreikuspenak beren irakasgaian garatzea eta gauzatzea espero da, askotariko gaitasun moten ikuspegi orokorra emanez, ikasketaren emaitzak zein diren zehaztuz, ikasleen arduraldiak zehaztasunez balioetsiz, etab. Gidak barne koherentzia maila handia izan behar du elementu nagusien artean; bereziki, eginkizunak, gaitasunak, proposamen metodologikoak eta benetan erabilitako ebaluazio prozedurak eta irizpideak parekatzeko ahalegina egingo du.

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Ikasle Gida egituratua, osatua eta argia*** | | |
|---|---|---|
| Adierazlea: Irakasgaia eta irakasleak identifikatzeko datuak ematen ditu | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0)<br>Edo: nahasia edo osatugabea da | | Bai (5)<br>Eta: informazio guztia ematen du |
| Adierazlea: Irakasgaia titulazioari dagokion arloaren testuinguruan kokatzen du | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Irakasgaia ez du testuinguruan kokatzen (0), edo oso azaletik kokatzen du (1-2) | 4-5 mailan jasotako alderdi baten edo biren arabera kokatzen du irakasgaia testuinguruan | Honako alderdi hauen arabera kokatzen du irakasgaia testuinguruan: aldez aurreko baldintzak, maila bereko beste irakasgai batzuk, aurreko edo ondorengo mailetako beste irakasgai batzuk, eta lanbidean aritzea |
| Adierazlea: Lantzen diren **gaitasun espezifikoak eta zeharkako gaitasunak** (edo gaitasun generikoak) azaltzen ditu | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ez du gaitasunik azaltzen | Espezifikoak bakarrik | Espezifikoak eta zeharkakoak |
| Adierazlea: Gai bakoitzari buruzko **eduki** teoriko-praktikoak barne hartzen ditu | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0) | | Bai (5) |
| Adierazlea: Irakaskuntza-ikaskuntzaren **metodologia** azaltzen du | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ez du ia azaltzen irakaskuntza mota bakoitzari lotutako irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologiarik | Oinarrizko azalpenen bat ematen du irakaskuntza mota bakoitzari lotutako irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologiari buruz | Irakaskuntza mota bakoitzari lotutako irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia zehatz-mehatz azaltzen du |
| Adierazlea: Irakaskuntza mota bakoitzean sartzen diren **jarduera** motak zehazten ditu | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0) | | Bai (5) |
| Adierazlea: Ebaluazio sistemak **irizpideak, tresnak eta sistemaren ehunekoetako balioa** barne hartzen ditu | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| **Ez du ebaluazio sistemarik zehazten (0), edo tresnak** bakarrik zehazten ditu **(1-2)** | Ebaluazio sistemak **tresnak eta sistemaren ehunekoetako balioa** barne hartzen ditu | Ebaluazio sistemak **irizpideak, tresnak eta sistemaren ehunekoetako balioa** barne hartzen ditu |
| Adierazlea: Irakaskuntza motaren arabera **ikasleek zenbat denbora eskaini behar duten** zehazteko kronograma bat dakar | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0)<br>Edo: osatugabea da (1-2) | | Bai (5)<br>Eta: osatuta dago |

| Adierazlea: Ikaskuntzarako **baliabideen berri ematen du** (bibliografia, Interneteko helbideak…) | | |
|---|---|---|
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0) | | Bai (5) |
| Adierazlea: Ikasleek **argi** eta erraz ulertzeko moduan idatzita dago | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Oso nahasia (0) | Hizkuntza tekniko-pedagogikoegia, edo orrialde kopuru desegokia (orrialde gehiegi edo gutxiegi) | Ikasleek ulertzeko moduko hizkuntza, orrialde kopuru egokia |

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Ikasketa plangintzara egokitutako Ikasle Gida*** | | |
|---|---|---|
| Adierazlea: Gidako gaitasunak bat datoz **titulazioaren** gaitasunekin Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0) | | Bai (4)<br>Ikastegiko txostenak egiaztatua, ohiko formulazio orokorrak erabiliz<br><br>Bai (5)<br>Ikastegiko txostenak goraipatua (berariaz, bereziki…), enfasia jarriz |
| Adierazlea: Gidako gaitasunak bat datoz **irakasgaian** aurreikusitako gaitasunekin (IKB) | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0) | | Bai (4)<br>Ikastegiko txostenak egiaztatua, ohiko formulazio orokorrak erabiliz<br><br>Bai (5)<br>Ikastegiko txostenak goraipatua (berariaz, bereziki…), enfasia jarriz |
| Adierazlea: Ikasketa plangintzako **irakaskuntza moten** aurreikuspenak betetzen ditu (IKB) | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0) | | Bai (4)<br>Ikastegiko txostenak egiaztatua, ohiko formulazio orokorrak erabiliz<br><br>Bai (5)<br>Ikastegiko txostenak goraipatua (berariaz, bereziki…), enfasia jarriz |
| Adierazlea: **Ikasleek eskaini behar dituzten orduak**, eskoletan zein eskoletatik kanpo, bat datoz aurreikusitakoarekin (IKB) | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0) | | Bai (4)<br>Ikastegiko txostenak egiaztatua, ohiko formulazio orokorrak erabiliz<br>Bai (5)<br>Ikastegiko txostenak goraipatua (berariaz, bereziki…), enfasia jarriz |
| Adierazlea: Gaitasunak zehazten dituzten **ikaskuntza emaitzen berri** ematen du | | |
| 0-1-2 | | 4-5 |
| Ez (0)<br>Ez du berariaz zehazten | | Bai (5) |

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Ikasle Gida berritzailea eta koherentea*** | | |
|---|---|---|
| Adierazlea: Badago **koherentzia** gaitasunen, metodologiaren, lanen eta ebaluazioaren artean | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ez | Elementu batzuetan soilik | Gaitasunen, metodologiaren, lanen eta ebaluazioaren arteko koherentzia |
| Adierazlea: **Partaidetzazko lana** sustatzeko jarduerak planifikatzen ditu | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ez | Jarduera bakanen bat bakarrik. Ez du ematen garrantzia dutenik irakasgaiaren garapenari begira | Maiz planifikatzen ditu talde laneko jarduerak. Jarduera garrantzizkoak dira |
| Adierazlea: **Ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzeko metodologiak** proposatzen ditu (arazoetan oinarritutako irakaskuntza, kasuak, proiektuak edo beste batzuk) | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ez | Jarduera bakanen bat bakarrik | Parte-hartze aktiboa eskatzen duten jardueren arabera antolatuta dago irakasgaiaren zati handi bat |
| Adierazlea: Ebaluazio sistemak ikaskuntzaren **gaitasunak/emaitzak** ebaluatzen ditu | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Soilik ezagutza | Ezagutza eta prozedura-gaitasunak | Ezagutza, prozedura gaitasunak eta jarrerak (balioak) |
| Adierazlea: **Ebaluazio jarraitua eta hezitzailea** proposatzen du, atzera-aurrerako egokia barne | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Amaierako ebaluazioa | **Ebaluazio jarraitua eta, funtsean, batutzailea** | **Ebaluazio jarraitua eta hezitzailea,** atzera-aurrerako egokia barne |

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Ikasleek nola jasotzen duten*** |
|---|
| Adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako* **1. itema**ren erantzunak ("Gure lanbidean gaitasunak garatzeari begira dago programazioa") |
| Inkestan lortutako puntuazioa (0-5)<br>Zuzenean, batez besteko puntuazioa |
| Adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako* **2. itema**ren erantzunak ("Irakasgaiaren programak informazio nahikoa dakar irakasgaiaren jarraipena egiteko") |
| Inkestan lortutako puntuazioa (0-5)<br>Zuzenean, batez besteko puntuazioa |

### *1.2. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena*

Irakaslanak *bat egin beharko luke irakasgaiak sustatu nahi dituen gaitasunekin*. Horrez gain, *IKD ereduarekin ere bat egin beharko luke*. UPV/EHUko irakasleek planteamendu metodologiko aktiboak eta partaidetzazkoak landu behar dituzte: partaidetzazko lanerako aukerak sortu behar dituzte; ikasketa esanguratsuen, autoerregulazioaren eta autonomiaren iturri izango diren aukerak, alegia (ikasten ikastea).

Ebaluazio prozesuen funtsezko elementuak dira emaitza, berrikuspen eta ebaluazioak komunikatzeko prozesuak. Irakasleek ebaluazio irizpideen berri eman behar dute. Prozesuan zehar, atzera-aurrerako hezitzailea, esanguratsua eta zehatza landu behar du hainbat egoeratan, eta denboran hobetzeko proposamenak egin. Modu horretan, eredu hezitzailea nagusituko da UPV/EHUko irakasleen ebaluazio lanean, prozesuari loturik (ebaluazio jarraitua).

Ikasleek, irakasleen irakaslanari buruzko iritzia eta asebetetze maila baloratzeko inkesten bitartez, irakasgaien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioa eta garapena egokiak diren edo ez egiaztatu beharko lukete.

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Metodo koherentea, metodologia aktibo eta kooperatiboarekin bat egiten duena (IKD)*** | | |
|---|---|---|
| Adierazlea: Partaidetzazko lan taldeetan lan egiten da; laguntza, berdinen arteko ikaskuntza eta taldeko kideen inplikazioa ezaugarri nagusi izanik | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ez du lan talderik eta talde lanik aipatzen. Edo: oso gutxi aipatzen ditu, ez da ohikoa. | Deskribatutako lanen zati bat betetzen du talde lanak. Noizbehinkako egoerak izan ohi dira. Ez dute garrantzi handirik azken kalifikazioari begira. | Deskribatutako lanen zati handi bat betetzen du talde lanak. Parte-hartzeak badu garrantzia. Parte-hartzearen emaitzak eta talde lana bera ebaluatu egiten dira. |
| Adierazlea: Ikasleak ikaskuntza prozesua autoerregulatzera, autonomiara eta ikasten ikastera bultzatzen dituzten lanen baldintzak | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Prozesua mugatua da, ez baitu autonomiarako aukerarik uzten. Ez dago aukeratzeko, prozesua kritikoki aztertzeko edo autoebaluazioa egiteko aukerarik. | Batzuetan, ikasleek beren kabuz antolatu behar dute ikaskuntza lanak zehazteko eta aurrera eramateko. Ez dago autokritikarako aukera espezifikorik. | Badago aukera prozedurak edo gaiak erabakitzeko, prozesuak diseinatzeko eta prozesuak kritikoki aztertzeko. |
| Adierazlea: Deskribatutako jarduerek eta lanek bat egiten dute irakasgaiak lortu nahi dituen ikaskuntza emaitzekin | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ikaskuntza lanen mugak ez daude garbi. Gainera, ez datoz bat irakasgaiak lortu nahi dituen gaitasunekin. | Ikaskuntzaren emaitzak ez daude oso definituta, baina badago koherentzia apur bat irakasgaiaren gaitasunen eta ikaskuntza lanen artean. | Proposatutako lanak bat datoz ikaskuntzaren emaitzekin. |
| Adierazlea: Deskribatutako jarduerek eta lanek planteamendu metodologiko aktiboa dute (arazoetan oinarritutako irakaskuntza, kasuak aztertzea, proiektuak…) | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ikasleen zeregin bakarra da informazioa jasotzea eta beren kabuz ikastea. | Apunteak hartzeaz eta beren kabuz ikasteaz gain, ariketa osagarriak, ariketa praktikoak edota txostenen bat edo beste egiten dituzte. | Deskribatutako ikaskuntza lanetan, ikasleak inplikatuta daude informazioa bilatzeko prozesuetan, analisi eta arrazoitze kritikoetan edota egoera berriak jakinarazteko ekintzetan. Alegia, ikaskuntza aktiboa da. |
| Adierazlea: Irakasleek galderak planteatzen dituzte, tresnak eskaintzen dituzte, trukerako aukerak ematen dituzte, atzera-aurrerakoa eskaintzen dute… | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Irakasleak azalpenak ematera mugatzen dira. Ez dago tutore lan aktiborik. | Eskoletan, irakasleek beste jarduera batzuk lantzen dituzte, azalpenen osagarri. Tutoretzak ere aipatzen dira. | Deskribatutako lanetan, ikaskuntza erraztera bideratzen da irakaslana, argi eta garbi. |
| Adierazlea: Irakasgaia emateko orduan, teoria eta praktika lantzen dira | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Alderdi praktikoak ez du garrantzirik, edo alderdi teorikotik bereiz eta loturarik gabe ematen du irakasleak. | Alderdi praktikoa saio teorikoen osagarri da. | Praktika eta teoria txandakatu egiten dira, elkar osatzen dute, eta batak bestea azaltzea dakar. Alderdi praktikoak garrantzi handia du. |

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Ebaluazio koherentea, jarraitua eta hezitzailea*** | | |
|---|---|---|
| Adierazlea: Aldez aurretik ezarritako eta ikasleei zehatz-mehatz jakinarazitako irizpide garbi batzuen arabera ebaluatzen du. Modu horretan, ikaskuntza prozesua bideratzen du | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ikasleek ez dute ebaluazio irizpideei buruzko informazio zehatzik jasotzen | Ebaluazio irizpide orokorrak aurkezten ditu. Edo: Ikasle Gidan badatozen datuak ematen ditu soilik | Irizpideak idatzita daude, eta ikasleek haiei buruzko informazio zehatza jasotzen dute |
| Adierazlea: Ebaluazioaren zati handi bat irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar lantzen da. Modu horretan, hobekuntzak eta aldaketak egin daitezke | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ebaluazio prozesu osoa edo ia osoa (lanak, azterketak) azken fasean edo ikasturtea amaitu ondoren kokatzen da. | Prozesuan zehar, zenbait lan egiten dira. Prozesuaren baitako lan batzuk aintzat hartzen dira irakasgaia ebaluatzeko. | Irakasgaia eman heinean, ebaluatzeko lanak, lanak edota praktikak egiten eta zuzentzen dira. |

| Adierazlea: Ikasleek beren lan akademikoen kalitateari buruzko informazio zehatza eta egokia jasotzen dute, garaiz, eta irakasleek hobetzeko jarraibideak ematen dizkiete | | |
|---|---|---|
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Atzera-aurrerakoa ez da ez aipatzen ez deskribatzen. "Emaitzak argitaratu eta erreklamazioak erantzun" prozeduratik gertu dago | Irakasleek lanen bat edo beste zuzentzen dute, eta ikasleei ematen diete. Berrikusitako lanetan hautemandako zailtasun eta gabezia nagusiak iruzkintzen dira, oro har | Emaitzak jakinaraztean, atzera-aurrerako egoerak sortzen dira, eta irakasleek hobekuntza proposamen zehatzak eta banakakoak egiten dituzte |
| Adierazlea: Bada koherentzia gaitasunen, metodologiaren, lanen eta ebaluazioaren artean | | |
| 0-1-2 | 3 | 4-5 |
| Ebaluazioak eta ebaluazio irizpideek ez dute lotura garbirik ez gaitasunekin ez metodologiarekin. | Elementu guztiak ez datoz elkarrekin bat. | Gaitasunak, metodologia, lanak eta prozedura, eta ebaluazio irizpideak bat datoz. Begi-bistakoa da elementuon arteko koherentzia |

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Ikasleek nola jasotzen duten*** |
|---|
| Adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako* "Irakaskuntza metodologia" dimentsioko puntuazioa |
| Inkestan lortutako puntuazioa |
| Adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako* "Irakaskuntzaren garapena" dimentsioko puntuazioa |
| Inkestan lortutako puntuazioa |
| Adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako* "Ikasleekiko eragin trukea" dimentsioko puntuazioa |
| Inkestan lortutako puntuazioa |
| Adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako* "Ikasketen ebaluazioa" dimentsioko puntuazioa |
| Inkestan lortutako puntuazioa |

## 2 DIMENTSIOA.- EMAITZAK

***2 dimentsioaren helburua:*** **Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak baloratzea. Horretarako, ikasleen emaitza akademikoak eta irakaskuntza jarduerarekiko gogobetetasun maila aztertuko dira. Era berean, zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak egin izana eta doktorego tesiak zuzendu izana hartuko da kontuan.**

### *2.1. Arrakasta tasak:*

Emaitza akademikoak, helburu hezitzaileak lortze aldera betiere, honako tasa hauen arabera baloratzen dira:

Taldea-Irakasgaia tasak aipatu taldean autotxostenerako aukeratutako irakasgaira aurkeztu direnetatik gainditu dutenen portzentajea adierazten du.

Taldea-Ikasturtea tasa talde horretan ikasturte horretako irakasgai guztietara aurkeztu direnetatik gainditu dituztenen portzentajea da.

Ikasturte tasa titulazio horretako ikasturte horretan dauden talde guztiei eta ematen diren irakasgai guztiei erreparatuz aurkeztu direnetatik gainditu dutenen portzentajea da.

| | **Adierazlea** | **Iturria** | **Irizpidea** | **Puntuak** |
|---|---|---|---|---|
| A | Taldea-Irakasgaia tasaren batezbestekoa | Sistema | ≥ 0,5 | 1 |
| | | | < 0,5 | 0 |
| | Irakasgaiaren zailtasun maila (< 0,5ko tasa duten kasuetan, zalantzazkoak baitira) | Inkesta | Iritzien % 50ek baino gehiagok zailtzat edo oso zailtzat jotzen dute | 1 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| B | Gainerako taldeekiko tasa | Sistema | + 0,05 | 2 |
| | | | + 0,5 eta - 0,15 artean | 1 |
| | | | - 0,15 | 0 |
| | Irakasleak arrazoitzea (balio arrotzak testuinguru batean kokatzeko bakarrik) | Irakaslea | arrazoitzea | 1 |
| | Ikastegiko Kalitate Batzordeak (IKB) arrazoitzea (garrantzitsua da kasu negatiboak identifikatzeko, irakasgaiaren barnean alderaketarik ezin egin eta maila batekin edo titulazioarekin alderatu behar denean) | IKB | arrazoitzea | |
| C | Tasaren joera | Sistema | + 0,15 | 2 |
| | | | + 0,15 eta - 0,15 artean | 1 |
| | | | - 0,15 | 0 |
| | Irakasleak arrazoitzea (balio arrotzak testuinguru batean kokatzeko bakarrik) | Irakaslea | arrazoitzea | 1 |

Adierazle bakoitzean lortutako puntuak aintzat hartuz iritsiko gara amaierako baloraziora. Ikus taula:

| A | B | C | Amaierako balorazioa |
|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2/1 | 5 |
| 1 | 1 | 2/1 | 4 |
| 1 | 2 | 0 | |
| 1 | 1 | 0 | 3 |
| 1 | 0 | 2/1/0 | |
| 0 | 2/1 | 2/1 | |
| 0 | 2/1 | 0 | 2 |
| 0 | 0 | 2 | |
| 0 | 0 | 1 | 1 |
| 0 | 0 | 0 | 0 |

### *2.2. Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta:*

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Ikasleen asebetetze maila*** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako* 25. itemaren puntuazioa | | | | | |
| 0 puntu | 1 puntu | 2 puntu | 3 puntu | 4 puntu | 5 puntu |
| 25. itema: < 2 | 25. itema: 2-2,5 | 25. itema: 2,5-3 | 25. itema: 3-3,5 | 25. itema: 3,5-4 | 25. itema: 4 baino gehiago |

Lortutako puntuazioari 0,5 puntu gehituko zaizkio, baldin eta 2 puntu edo gehiago lortzen badira taula honetan (edozein kasutan, 5 puntukoa izango da gehieneko DOCENTIAZ balioa):

| **Adierazlea** | **Iturria** | **Irizpidea** | **Puntuak** |
|---|---|---|---|
| Irakasgaiaren zailtasun maila | Inkesta | Iritzien % 50ek baino gehiagok zailtzat edo oso zailtzat jotzen dute | 1 |
| Irakasgaiaren gaineko interesa handitzea | Inkesta | Hasierako interesaren ehunekoa jaistea (oso baxua + baxua) | 1 |
| Sailarekiko/titulazioarekiko puntuazioa | Inkesta | Irakaslearen batezbestekoa Sailaren/titulazioaren batezbestekotik gorakoa izatea | 1 |
| Inkestaren emaitza | Irakaslea | arrazoitzea | 1 |
| Inkestaren emaitza | IKB | arrazoitzea | |

### *2.3. Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak:*

Ebaluatu nahi den denboraldian irakasleek gainbegiratutako lanaren truke lortu dituzten kredituak gehitu behar dira.

*Adierazleak*

| ***Irizpidea: Eranginkortasuna eta ikasleen autonomia sustatzea*** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Adierazlea: GAURen aintzatetsitako kredituak | | | | | |
| 0 puntu | 1 puntu | 2 puntu | 3 puntu | 4 puntu | 5 puntu |
| 0 kreditu | < 2 kreditu | < 5 kreditu | < 7 kreditu | < 10 kreditu | ≥ 10 kreditu |

**Oharra: taula horretan, 5 ikasturteko ebaluazio denboraldiari dagozkion balioak jarri ditugu. Denboraldia 5 ikasturtekoa ez bada, harekiko balio proportzionalak aplikatu beharko dira.**

## 3 DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZAREN GARAPEN PROFESIONALA

*3 dimentsioaren helburua:* UPV/EHUko irakasleek irakaskuntza berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako duten orientazio maila baloratzea, baita koordinatzaileen (irakasgai, maila, modulu eta titulaziokoen) onarpena ere, bikaintasunezko irakaskuntza lortze aldera.

### *3.1 UPV/EHUko irakaskuntzaren kalitate instituzionaleko prozesuetan parte hartzea*

| **Ekintza** | **Puntuak emateko irizpidea** |
|---|---|
| Graduko batzordeak | Partaidetza: 1 puntu ekintza eta urte bakoitzeko<br>Zuzentzea/koordinatzea: 2 puntu ekintza eta urte bakoitzeko |
| Kalitate Batzordea | Partaidetza: 1 puntu ekintza eta urte bakoitzeko<br>Zuzentzea/koordinatzea: 2 puntu ekintza eta urte bakoitzeko |
| Kalitate Errektoreordetzak bultzatutako programak zuzentzea (adibidez, Eragin zuzentzea) | Partaidetza: 1 puntu ekintza eta urte bakoitzeko<br>Zuzentzea/koordinatzea: 2 puntu ekintza eta urte bakoitzeko |
| Irakaskuntza txostenen batzordea (Docentiaz) | Partaidetza: 1 puntu ekintza eta urte bakoitzeko<br>Zuzentzea/koordinatzea: 2 puntu ekintza eta urte bakoitzeko |
| IBP batzordeak | Partaidetza: 1 puntu ekintza eta urte bakoitzeko<br>Zuzentzea/koordinatzea: 2 puntu ekintza eta urte bakoitzeko |
| IEUB batzordea | Partaidetza: 1 puntu ekintza eta urte bakoitzeko<br>Zuzentzea/koordinatzea: 2 puntu ekintza eta urte bakoitzeko |
| Irakaskuntzaren kalitate instituzionaleko prozesuekin lotura duten beste ekintza batzuk | 0,5 puntu ekintza eta urte bakoitzeko |

### *3.2 Koordinazio instituzionala*

| **Ekintza** | **Puntuak emateko irizpidea** |
|---|---|
| Titulazioko koordinatzailea | 3 puntu urteko |
| Masterreko koordinatzailea | 3 puntu urteko |
| Moduluko koordinatzailea | 2 puntu urteko |
| Mailako koordinatzailea | 2 puntu urteko |
| Irakasgaiko koordinatzailea | 1 puntu urteko |
| Beste koordinatzailea batzuk | 0,5 puntu urteko |

OHARRA: Ekintza bera bi ataletan baloratzen bada, puntuazio maximoa emango da.

### *3.3 Prestakuntza*

3.3.1.- Jasotako prestakuntza

| Ekintza | Puntuak emateko irizpidea |
|---|---|
| ERAGIN | 5 puntu |
| AICRE | 2,5 puntu |
| SICRE | 2,5 puntu |
| EPD | 1,5 puntu |
| Ehundu | 2,5 puntu |
| Behatu | 1,5 puntu aste bateko egonaldia egitearen truke |
| Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) | 2 (materialen hizkuntza kalitatea hobetzea) + 2 puntu (terminoen glosarioa egitea) |
| Teaching your subject in English: Improving your Language and Teaching skills (TYSE) | 0,5 puntu 10 orduko (gehienez ere, 2 puntu) |

UPV/EHUtik kanpo jasotako prestakuntza:

Jasotako prestakuntzak irakaskuntzarekin zer zerikusi duen adierazi beharko da.

| Ekintza | Puntuak emateko irizpidea |
|---|---|
| Irakaskuntzarekin lotura duten biltzar edota jardunaldietara joatea | 0,5 puntu ekintza bakoitzeko |
| Irakaskuntzarekin lotura duen prestakuntza | 0,5 puntu 10 orduko |

3.3.2.- Emandako prestakuntza

| Ekintza | Puntuak emateko irizpidea |
|---|---|
| ERAGINeko tutorea | 5 puntu |
| AICREko tutorea | 2,5 puntu |
| SICREko tutorea | 2,5 puntu |
| EPDko tutorea | 1,5 puntu |
| Ehundu-ko prestatzailea | 2,5 puntu |
| Terminologia Sareak Ehunduz-eko tutorea | 2 (materialen hizkuntza kalitatea hobetzea) + 2 puntu (terminoen glosategia egitea) |
| Teaching your subject in English: Improving your Language and Teaching skills programako tutorea | 0,5 puntu 10 orduko (gehienez ere, 2 puntu) |
| Beste prestakuntzaren bat | 0,5 puntu, ikastaro bera errepikatuz gero (gehienez ere, 2 puntu)<br>1 puntu, ikastaro bat baino gehiago emanez gero |

### *3.4 Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak*

3.4.1. Hezkuntza berrikuntza

| Ekintza | Puntuak emateko irizpidea |
|---|---|
| HBP batean parte hartzea | 1 puntu urte bakoitzeko |
| HBP bat zuzentzea | 1,5 puntu urte bakoitzeko, UPV/EHUk finantzatuz gero<br>2 puntu urte bakoitzeko, kanpotik finantzatuz gero<br>Bi kasuetan, 5 puntu emango dira HBP bat zuzenduz gero 3 urtez edo gehiago |

### 3.4.2. Argitalpenak

| Argitalpena | Puntuak emateko irizpidea |
|---|---|
| Index aldizkarietako argitalpenak | Gehienez 2,5 puntu |
| Beste aldizkari batzuetako artikuluak | Gehienez 1 puntu |
| Argitaletxe batean argitaratutako eta kanpotik ebaluatutako liburuak | Gehienez 5 puntu |
| Argitaletxe batean argitaratutako eta kanpotik ebaluatutako liburuetako kapituluak | Gehienez 1 puntu |
| IKD baliabideak, OCW | Gehienez 2 puntu |

Euskaraz argitaratutako lanak modu berezi batean baloratuko dira.

## *3.5 Hedapena*

| Ekintza | Puntuak emateko irizpidea |
|---|---|
| Hilabete batetik gorako epean eskolak emateko egonaldiak | 3 puntu |
| Irakaskuntzaren kanpo ebaluazioko batzordeetako kide aditua | 3 puntu, urte bateko lanetik aurrera |
| Dibulgazio jarduerak (Zientziaren Astea, Zientzia Bizirik, tailerrak, hedabideetan luzaroan parte hartzea, eta abar) | 3 puntu, urte batetik aurrera |
| Irakaskuntzari buruzko edo dibulgaziozko aldizkarietako argitalpen batzorderen bateko kidea | 2 puntu, urte bateko lanetik aurrera |
| Irakaskuntzari buruzko biltzarrak antolatzeko batzordeetako presidentea | Gehienez 3 puntu |
| Irakaskuntzarekin edo ezagutza hedatzearekin lotutako sariak (banakakoak) | Gehienez 3 puntu |
| Eskolak emateko egonaldiak, asteka | 1 puntu aste bakoitzeko (gehienez ere, 3 puntu) |
| Noizbehinkako hitzaldiak | 0,5 puntu hitzaldi bakoitzeko |
| Unibertsitate orientabideari buruzko jardueretan sarri parte hartzea | Gehienez 0,5 puntu |
| Irakaskuntzari buruzko biltzarrak antolatzeko batzordeetan parte hartzea | Gehienez 1 puntu |
| Irakaskuntzarekin edo ezagutza hedatzearekin lotutako sari partekatuak edo kolektiboak | Gehienez 1 puntu |

Hedapenarekin eta dibulgazioarekin lotura duten lanak euskaraz argitaratuak badira, modu berezi batean baloratuko dira.

# 6A eranskina. Irakaslearen amaierako txostena

**UPV/EHUko irakasleen irakaslana ebaluatzeko DOCENTIAZ programaren fase esperimentalaren 2. deialdia**

# Irakaslearen amaierako txostena, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak prestatua

**Irakaslea: ______________________________________**
**Saila: ____________________________________________**
**Atxikitako ikastegia: _____________________________________**
**Ebaluatu beharreko denboraldia: ________________________________**

**Txosten hau prestatzen parte hartu duten kideen zerrenda:**

**Presidentea:**

**Kideak:**

**Idazkaria**

## Irakaslearen amaierako txostena betetzeko gida

Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa aztertu ondoren, UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak dagozkion balorazioak egiteari ekingo dio.

Analisia ereduko dimentsio eta adierazleei eta argitaratutako ebaluazio irizpideei jarraiki egitea gomendatzen da. Hala ere, garrantzitsua da osotasunezko ikuspegi bat izatea eta ereduko atal ezberdinen arteko koherentzia egiaztatzea.

Txosten honetan garrantzi berezia hartzen du irakaslearen irakaskuntza jardueraren inguruan egiten den balorazio kualitatiboak.

Balorazio kuantitatiboa egiteko, Batzordeak 0tik 5era bitarteko puntuazioa emango du ataletako bakoitzean. Gogoan izan, 0 zenbakiak ebaluazio irizpiderako egokitzapenik eza adierazten du, 3 zenbakiak irizpideetara doi-doi egokitzen dela eta 5 zenbakiak irizpideetara erabat egokitzen dela.

Aplikazio informatikoak ereduko adierazle ezberdinen garrantzien arabera eraldatuko du aipatu puntuazioa. Hala, txostenaren amaieran orotara lortutako puntuazioa agertuko da, gehienezko puntuazioa 100ekoa izango delarik. 0 dimentsioaren ondoriozko faktore zuzentzailea aplikatu ondoren, puntuazioa 120ra ere hel daiteke.

## 0 DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZA ZAMA

Irakaskuntza jarduueraren zailtasun maila baloratzen da, hainbat faktoreren arabera

**Irakaskuntza zamaren laburpena**

| Ikasturtea | Irakaskuntza zama (kredituak) | Kargu edo lizentziengatiko murriztea (orduak) | Irakasteko gaitasuna (kredituak) |
|---|---|---|---|
| 2005/06 | datua | datua | datua |
| 2006/07 | datua | datua | datua |
| 2007/08 | datua | datua | datua |
| 2008/09 | datua | datua | datua |
| 2009/10 | datua | datua | datua |

**f1, f2 eta f3 faktoreak**

**Faktoreen arabera egokitutako irakaskuntza zama: f1 (talde bakoitzeko ikasle kopurua), f2 (beste ikastegi batzuetan emandako orduak) eta f3 (euskaraz emandako eskolak)**

| 2005/06 ikasturtea | 2006/07 ikasturtea | 2007/08 ikasturtea | 2008/09 ikasturtea | 2009/10 ikasturtea |
|---|---|---|---|---|
| 1. datua | 2. datua | 3. datua | 4. datua | 5. datua |

**$BBIZEf_{1\text{-}3}$=Batez besteko irakaskuntza zama, f1, f2 eta f3 faktoreen arabera egokitua.**

$$BBIZEf_{1-3} = \frac{1.datua + 2.datua + 3.datua + 4.datua + 5.datua}{EbaluatuBeharrekoAldikoIkasturteKop.} = 6.datua$$

**f4 eta f5 faktoreak**

**$BBIZEf_{1\text{-}5}$=Batez besteko irakaskuntza zama, f1, f2, f3, f4 (irakasgai ezberdinen kop.) eta f5 (irakasle berriak, ez iraunkorrak) faktoreen arabera egokitua**

$$BBIZEf_{1-5} = BBIZEf_{1-3} \times f4 \times f5 = 6.datua \times f4datua \times f5datua = 7.datua$$

**Ondoriozko adierazlea**

**AIZ = Amaierako irakaskuntza zama**

$$AIZ = BBIZf_{1-5} + BBIZTI + EBBIZ + BBMK = 8.datua$$

$BBIZEf_{1\text{-}5}$ = Batez besteko irakaskuntza zama, f1, f2, f3, f4 eta f5 faktoreen arabera egokitua
BBIZTI = Batez besteko irakaskuntza zama tutoretzapeko irakasgaietan
EBBIZ = Eskuliburuko batez besteko irakaskuntza zama
BBMK = Batez besteko murrizketa kredituak

**IGBB = Irakasteko gaitasunaren batezbestekoa**

IGBB = 9. datua

| **AIZen ehunekoa, IGBBrekiko** |
|---|
| $$\frac{8.datua}{9.datua}\times 100 = 10.datua$$ |
| **OA = Ondoriozko adierazlea** |
| OA = 11. datua<br><br>Ehunekoa 110ekoa edo txikiagoa baldin bada Adierazlea=1<br>Ehunekoa 110-120 artekoa baldin bada Adierazlea=1,1<br>Ehunekoa 120koa baino txikiagoa baldin bada Adierazlea=1,2 |

## 1 DIMENTSIOA.- IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA

Irakaskuntza plangintzaren kalitatea baloratzen da, baita irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin eta IKD ereduarekin bat datorren edo ez.

| IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA (Gehienez 40 puntu) | | | |
|---|---|---|---|
| **Azpidimentsioak** | **Pisua** | **IEUBren balorazioa (0tik 5era)** | **Pisuaren araberako puntuazioa** |
| 1.1.- Gaien plangintza | 20 | | |
| 1.2.- Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena | 20 | | |
| **1 dimentsioa, guztira** | | | |

## 2 DIMENTSIOA.- EMAITZAK

Emaitzak prestakuntza helburuak kontuan hartuta baloratzen dira

| EMAITZAK (Gehienez 30 puntu) | | | |
|---|---|---|---|
| **Azpidimentsioak** | **Pisua** | **IEUBren balorazioa (0tik 5era)** | **Pisuaren araberako puntuazioa** |
| 2.1.- Ikasleek lortutako arrakasta tasak | 10 | | |
| 2.2.- *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarritutako txostena | 10 | | |
| 2.3.- Zuzendutako edo gainbegiratutako lanak | 10 | | |
| **2 dimentsioa, guztira** | | | |

## 3 DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZAREN GARAPEN PROFESIONALA

Irakaskuntzaren garapen profesionala UPV/EHUn bikaintasuneko irakaskuntza lortzeko helburuaren arabera baloratzen da.

| IRAKASLEEN GARAPEN PROFESIONALA (Gehienez 30 puntu) | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Azpidimentsioak** | **Pisua** | **Puntuen batura** | **IEUBren balorazioa (0tik 5era)** | **Pisuaren araberako puntuazioa** |
| 3.1.- Irakaskuntza kalitate instituzionalerako prozesuetan parte hartzea | 6 | | | |
| 3.2.- Koordinazio instituzionala | 6 | | | |
| 3.3.- Prestakuntza | | | | |
| 3.3.1.- Jasotako prestakuntza | 6 | | | |
| 3.3.1.- Emandako prestakuntza | 6 | | | |
| 3.4.- Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak | | | | |
| 3.4.1.- Hezkuntza berrikuntzako proiektuak | 6 | | | |
| 3.4.2.- Irakaskuntzarekin lotutako argitalpenak | 6 | | | |
| 3.5.- Hedakuntza | 6 | | | |
| **3 dimentsioa, guztira** | | | | |

**IRAKASLEAREN BALORAZIO OROKORRA**

Deskriba ezazue, azaletik, irakaslearen balorazio orokorra eta azpimarra itzazue, bereziki, aitormena merezi duten bere jardunbideak:

**PUNTUAK, GUZTIRA**

| Dimentsioak | Puntuazioa |
|---|---|
| **1 dimentsioa.- Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena** | |
| **2 dimentsioa.- Emaitzak** | |
| **3 dimentsioa.- Irakasleen garapen profesionala** | |
| **Guztira** | |
| | |
| **0 dimentsioa.- Ondoriozko adierazlea** | |
| **Amaierako puntuazioa** | |
| **Amaierako emaitza** | |

AMAIERAKO EMAITZA:

- KONTRAKOA (30 puntu baino gutxiago)
- ONARGARRIA (30 eta 60 puntu artean)
- ONA (61 eta 90 puntu artean)
- BIKAINA (90 puntu baino gehiago)

Onargarri, on eta bikain kategorietarako, beharrezkoa da 1 dimentsioan gutxienez 20 puntu lortzea.

# 6B eranskina. Erakundeari zuzendutako amaierako txosten eredua

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

**UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren DOCENTIAZ ebaluazio programaren fase esperimentaleko bigarren deialdia**

# Erakundeari zuzendutako amaierako txostena, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak prestatua

**Ikastegia/ Saila/ Unibertsitatea: ___________________________**
**Ebaluatu beharreko denboraldia: ______________________________**

**Txosten hau prestatzen parte hartu duten kideen zerrenda:**

**Presidentea**

**Kideak**

**Idazkaria**

## Erakundeari zuzendutako amaierako txostena betetzeko gida

Irakasleek garatutako irakaskuntza jardueren baloraziotik ondorioztatzen diren emaitzak ikusita, UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak txosten instituzional bat prestatzen du arduradun akademikoei zuzendua.

Txosten hauen helburua erakundeek irakaskuntzaren garapen egokian duten erantzukizuna aitortzea da, erabakiak hartzeko garaian berau inplikatuz, programa hau gidatzen duten garapen profesional eta instituzionala eta lurralde garapena bultzatu asmoz.

Txosten hauek deialdi honetan parte hartu duten irakasleen ikastegi eta sailetara zuzenduko dira. Halaber, egoki ikusten bada, oro har Unibertsitateari zuzendutako txostena egingo du.

Hala ere, erakundeari zuzendutako txosten hauek (sailari, ikastegiari eta Unibertsitateari) parte hartu duten irakasleen kopurua kide guztien % 30 baldin bada bakarrik egingo dira.

UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak faktore hauek hartuko ditu kontuan txosten hauek prestatzeko garaian:

- Zamari, plangintzari, garapenari, emaitzei eta irakaskuntzaren garapen profesionalari eragin dieten baldintzen izaera (araudizkoak, antolaketazkoak, materialak, etab.).
- Hautemandako akatsen garrantzia.
- Gaitasunen garapenarekiko, erabilitako metodologiekiko, irakasleak erabilitako ebaluazio sistemekiko, berrikuntza planekiko eta abarrekiko egokitzapen maila.
- Batzordeak berak finkatuko du egindako balorazioak biltzeko erarik egokiena.
- Irakaskuntza jardueraren adibide on gisa hartzen diren jardunbideak nabarmenduko ditu, horien hedapena eta aitormena bilatzeko asmoz. Maila, irakasgai eta abarretako lan taldeei dagozkien balorazioak ere hartuko dira aintzat (ikastegiari zuzendutako txostenean barneratuta egongo lirateke). Kasu honetan, jardunbide egokiak aitortzeko asmoa badago irakasleen izenak aipa daitezke.
- Era berean, hobetzeko alorrak proposatu ahal izango ditu. Kasu honetan ezin izango da inoiz irakaslearen izenik agertu. Etorkizuneko irakaskuntza prestakuntza eta berrikuntzako planen orientazioa eta gaiak biltzen dituzten arduradun akademikoentzako aholkuak ematea da asmoa, ebaluazio ereduaren dimentsio guztiak edo batzuk aintzat hartuz.

Azken batean, irakaskuntza jardueraren ebaluazioaren emaitzen balantzea egitea da asmoa, irakasleen prestakuntza planei begira eta irakaskuntzaren hobekuntzari begira erabakiak hartu ahal izateko.

Batzordeak, datuetatik abiatuz, sailaren, ikastegiaren edo Unibertsitatearen barruan positibotzat jotzen dituen arloak eta  hobetu daitezkeen alor ezberdinak ondorioztatuko ditu.

| Indarguneak | Hobetzeko alorrak |
|---|---|
| | |

Batzordeak egoki ikusten badu, erakundeak (sailak/ ikastegiak/ Unibertsitateak berak) irakaskuntzaren garapenaren bikaintasunagatik aitormen berezirik merezi duen ala ez adieraziko du:

| |
|---|
| |

# SAILARI/IKASTEGIARI/UNIBERTSITATEARI DAGOZKION DATU GEHIGARRIAK ABIAPUNTU HARTUTA EGINDAKO TXOSTEN ESTATISTIKOA

Aplikazio informatikoak emaitzen datu gehigarriak jasotzen dituen txosten bana bidaliko du estamentu bakoitzera, betiere, ebaluazio prozesuan parte hartu duten irakasleei[1] buruzko informazio konfidentziala babestuz.

Parte hartu duen irakasle kopurua: ☐

## 0 DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZA ENKARGUA

Parte hartu duten irakasleen faktore zuzentzailearen batezbestekoa: ☐

## 1 DIMENTSIOA.- PLANGINTZA ETA IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUAREN GARAPENA

Parte hartu duten irakasleen balorazioak abiapuntutzat hartuz lortutako batezbestekoak:

| | |
|---|---|
| 1 dimentsioa. Plangintza eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena(gehienez 40) | |
| 1.1. Irakasgaien plangintza (gehienez 20) | |
| 1.2. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena (gehienez 20) | |

## 2 DIMENTSIOA.- EMAITZAK

Parte hartu duten irakasleen balorazioak abiapuntutzat hartuz lortutako batezbestekoak:

| | |
|---|---|
| 2 dimentsioa. Emaitzak (gehienez 30) | |
| 2.1. Ikasleen arraskata tasak (gehienez 10) | |
| 2.2. Ikasleek duten iritziari buruzko inkesta (gehienez 10) | |
| 2.3. Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak (gehienez 10) | |

### 3 DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZAREN GARAPEN PROFESIONALA

Parte hartu duten irakasleen balorazioak abiapuntutzat hartuz lortutako batezbestekoak:

3 dimentsioa. Irakaskuntzaren garapen profesionala (gehienez 30)

| | |
|---|---|
| 3.1. Irakaskuntzaren kalitate instizionaleko prozesuetan parte hartzea (gehienez 6) | |
| 3.2. Erakunde-koordinazioa (gehienez 6) | |
| 3.3. Prestakuntza | |
| 3.3.1. Jasotako prestakuntza (gehienez 6) | |
| 3.3.2. Emandako prestakuntza (gehienez 6) | |
| 3.4. Irakaskuntza berrikuntza | |
| 3.4.1. Irakaskuntza berrikuntzaren proiekzioa (gehienez 6) | |
| 3.4.2. Irakaskuntzan egindako argitalpenak (gehienez 6) | |
| 3.4. Proiekzioa (gehienez 6) | |

## IRAKASLEEN BALORAZIO OROKORRA

Parte hartu duten irakasleen balorazioak abiapuntutzat hartuz lortutako batezbestekoak:

| | |
|---|---|
| Puntu guztien BATEZBESTEKOAK (gehienez 100): | |
| Faktore zuzentzaileen BATEZBESTEKOAK (0 dimentsioa): | |
| **GUZTIZKO PUNTUAZIOAREN BATEZBESTEKOAK** *Biderkatu puntu guztiak faktore zuzentzaileaz:* | |

# 7. eranskina. Alegazioetarako formulario eredua

**UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren DOCENTIAZ ebaluazio programaren fase esperimentaleko bigarren deialdia**

# ALEGAZIOETARAKO FORMULARIOA

**Izen-abizenak:**

**Saila:**

**Atxikitako ikastegia:**

**HAU AZALDU DU:**

**ESKAERA:**

(e)n, 200 (e)ko aren (e)(a)n

Sinadura:

# 8. eranskina. Eskuliburuan erabilitako terminoen glosarioa

# ESKULIBURUAN ERABILITAKO TERMINOEN GLOSARIOA

**Irakaskuntza jardunbide egokia:** hausnartutako ekintza da. Testuinguruaren mugak gorabehera, irakasleak jardunbideekin lan egiten du, ikasleek gaitasunak hartzea faboratu eta erakundearen edo programaren errendimendua hobetzeko. Irakaskuntza jardunbide egokia zailtasunak ikasleen ikasketa prozesurako eta garapen instituzional eta lurralde garapenerako aukera edo potentzialtasun bihurtzen dituena dela esan liteke.

**Irakasteko gaitasuna:** datu hau GAUR aplikaziotik ateratzen da eta emandako kontratu orduak adierazten ditu (kargu edo lizentziengatiko liberazioak aintzat hartu gabe).

**Ikastegiko Kalitate Batzordea**: Ikastegiko Batzarrak izendatzen du. Zuzendaritza edo dekanotza taldearekin batera KBBSren plangintza eta jarraipena egiten du eta, horrez gain, aipatu kalitate sistemari loturiko politika, helburu, plan, programa, erantzukizun eta lorpenen barne komunikaziorako bitartekoetako bat ere bada. Halaber, ikastegiko zuzendaritza taldeari eta Ikastegiko Batzarrari laguntza eta aholkularitza emango die tituluen curriculum garapenaren plangintza eta jarraipena egiterakoan, gaitasunetan oinarritutako irakasteko eta ikasteko ereduan oinarrituta. Eredu horretan, metodologia aktiboak aplikatuz eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiez lagunduta, norbanako edo talde bakoitzak bere ikasteko prozesua bideratzea eta etengabeko ebaluazioa egitea bultzatuko ditu, irakaskuntza eleaniztunaren testuinguruan. Orobat, Ikastegiko Kalitate Batzordea irakasleen ebaluaziorako txostenak egiteaz arduratuko da.

**Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea (IEUB)**: irakaskuntza jarduera ebaluatzeko DOCENTIAZ programan parte hartzen dutenen azken balorazioa egiteaz arduratzen den batzordea da.

**Berme Batzordea:** irakasleak egindako gora jotzeko errekurtsoak ebazteaz arduratzen den batzordea da.

**Irizpidea:** balorazio bat egiteko oinarritzat hartzen den elementua.

**Dimentsioa**: ebaluatu eta baloratzen den elementua. Azpidimentsioen bidez gauza daiteke.

**Irakaskuntza zama:** datu hau GAUR aplikaziotik ateratzen da eta aitortutako irakaskuntza zama adierazten du; hau da, emandako irakaskuntza zama eta eskuliburuko irakaskuntza zama.

***Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta*:** inkesta hau UPV/EHUn 1989/1990 ikasturteaz geroztik dago ezarrita. Inkesta honen helburu nagusia irakasleei ikasleek haien irakaskuntza nola hautematen duten jakinaraztea da.

**Ebaluazioa:** prozesu honen bitartez, informazio iturriek emandako informazioan oinarrituta, ebaluatzaileak zenbait balorazio bidaltzen ditu erabakiak hartzeko helburuz.

**Informazio iturria:** ezarritako irizpideei jarraiki ebaluatzen denari buruzko informazioa ematen duten elementuen multzoa (dokumentuak edo pertsonak).

**GAUR (Unibertsitateko akademi gestio gaurkotua):** UPV/EHUko irakaskuntza eskaintza eta irakasleen irakaskuntza zama ezartzen duen aplikazio informatikoa.

**Betetzeko gida:** tresna edo txosten zehatz bat osatzen duten atalak behar bezala betetzen laguntzen duen jarraibide multzoa.

**Titulazioko gida:** titulazio bat ezartzeko ANECAk baieztatzen duen gida da.

**Ikasle Gida:** Ikasle Gidak bi eginkizun ditu: *irakasgaia aurkezteko bitarteko nagusia* da eta, ikasturtean zehar, irakasle eta ikasleentzako *bidaia orri* gisa erabiltzen da. UPV/EHUko irakasleek ikasketa planeko aurreikuspenak beren irakasgaian garatzea eta gauzatzea espero da, askotariko gaitasun moten ikuspegi orokorra emanez, ikasleen arduraldiak zehaztasunez balioetsiz, etab. Gidak barne koherentzia maila handia izan behar du elementu nagusien artean; bereziki, eginkizunak, gaitasunak, proposamen metodologikoak eta benetan erabilitako ebaluazio prozedurak eta irizpideak parekatzeko ahalegina egingo du.

**Irakasgaiaren irakaskuntza gida:** irakasleek GAUR aplikazioan aurki dezakete eta, bertan, eman beharreko irakasgaiari buruzko oinarrizko datuak jasotzen dira.

**Adierazlea:** goi mailako hezkuntzako erakundeek edo programek dituzten eta enpirikoki neurgarriak diren hainbat ezaugarri zehatzei dagokien aldaera operatiboa. Erakunde edo programa horien inguruko ebidentziak lor daitezke, hainbat baldintza betetzen diren edo ez zehazteko.

**Ebaluazio txostena:** ebaluazio prozesuaren ondoriozko dokumentua da. Ereduaren plangintzari eta egiturari erantzun behar die eta ebaluazio prozesu orotatik eratortzen diren erabakiak hartzen lagundu behar du.

**Parametroa:** egoera bat aztertu edo baloratzeko ezinbestekotzat jotzen den datu edo faktorea.

**Informazioa biltzeko prozedura:** iturri bakoitzaren bitartez adierazleen ebidentziak biltzera bideratuta dauden ekintzen multzoa.

**Ebaluazio protokoloa:** Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko (IEUB) ebaluatzaileen lana erraztea helburu duen tresna. Protokolo honek haien balorazioak egituratu, bideratu eta gardenagoak egiten ditu eta ebaluatu beharreko adierazleetako bakoitzean puntuazioak emateko irizpideak biltzen ditu.